

97

4 euro • 2005eko APIRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: AUTORITATEA, MUGAK JARRI
EZINIK • ESPERIENTZIA: ORIENTE-
ERING ARTEAGAN • KATALUNIARAKO
HEZKUNTZA FOROA • LEMOIZEKO
ESKOLA: HERRI TXIKIARENTZAT BIZITZA



ELKARRIZKETA

Sandra Piccinini
Maddalena Tedeschi

Oinarrizko gaitasunak lantzeko koadernoak



Ikusmen jokoak

Ikusmenaren zorroztasuna eta aditasuna lantzeko jarduerak: objektuak bereziki, bikoteak elkartu, desberdintasunak aurkitu, marrazkiak osatu, etab.

Logika jokoak



Arrazoibidearen prozesua bizkortzen duten jarduerak: segidak ordenatu eta osatu, objektuak erlazionatu, egoerak ondorioztatu, etab.



Orientazio jokoak

Espazio hurbilaz jabetzeko eta berau egituratzeko jarduerak: labirintoei jarraitu, norabideak bereziki eta seinالاتu, objektu baten egocra eta kokagunca zehaztu, etab.





gaia

AUTORITATEA, MUGAK JARRI EZINIK

Guraso autoritarioak izatetik, mugarik jartzen ez duten gurasoetara pasa gara. Horrek, uste baino eragin ezkorragoak sortzen ditu seme-alabengan.



elkarrizketa

MADDALENA TEDESCHI SANDRA PICCININI

Reggio Emiliako (Italia) udal haur eskoletako pedagogoa eta instituzioko lehendakaria.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

AUTORITATEA, MUGAK JARRI
EZINIK

16 elkarrizketa

MADDALENA TEDESCHI
SANDRA PICCININI

24 esperientzia

Planoa eskuan eta ibili munduan

Orienteering Arteagan zehar

José Luis Bardón eta Juanma Iturralde

29 ekarpena

Kataluniako hezkuntzarako gizarte foroa

31 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Herri txikiarentzat bitzta

Lemoizeko eskola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel.: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAMGraf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.
Azaleko irudia: Reggio Emiliako udal haur eskolak (0-6 urte) jardunaldiak (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2005-III-17. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala

apirila

Beste mundu bat posible da; hezkuntza eguneratuz eraiki dezagun



Hezkuntzaz hitz egiten badugu aniztasunaz hitz egin behar dugu. Ez dago nor inor baino jakintsuagoa denik. Kultura desberdinak eta sozialki osagarriak direnak daude. Desberdintasunak onartu behar dira, eta desberdintasun horiek ez ditugu dibergentzia bilakatu behar.

Kataluniarako Hezkuntzarako Gizarzte Foroa egin dute Bartzelonan. Han, hezkuntza denen ardura dela, eta jendartearen etorkizunerako funtsezkoa dela aldarrikatu dute. Hezkuntza etorkizunerako arma da: ideia horretan oinarritu da foroa.

Aldaketa handiak gertatzen ari diren aroan bizi gara, zalantzarik gabe. XV.-XVI. mendeetan feudalismotik modernitate-rako aldaketa gertatu zen. Geroztik ez da gertatu gaur egun bizitzen ari garen moduko aldaketarik. Modernitate garaia agortu da, beste testuinguru batean gaudete, eta mundu berri bat sortzen ari da; testuinguru horretan hezkuntzan pentsatu behar dugu.

Frei Bettoren ustez, mundu berri hori ez da hegemonien mundua izango, ezta kontsentsuena ere. Dibertsitateen mundua izango da, pluralitateena, desberdintasunena; horrek guztiak, aberastasuna ekarriko du; justizian eta maitasunean sorburua duen jende duinean oinarri bat eraikitzen dugun heinean.

Mundu globalizatuan bizi gara. Glo-

balizazioa dela-eta, AEBetako lau biztanlek 600 milioi biztanle dituzten 42 herrialdek adina aberastasun dute. Horrek ez dakar diru pilaketa soilik, baita hori baino aberastasun handiagoa den jakintzaren, zientziaren eta informazioaren pilaketa ere.

Bizi dugun arazo behinena gizarte desberdintasunarena da. Egun, 11.000 milioi pertsona elikatzeko adina janari dugu munduan. Oraindik ez gara jende kopuru horren erdira ere iritsi. Beraz, goseak sortzen dituen hainbeste heriotzen arrazoia ez da elikagaien eskasia, ezta jende kopuru gehiegizkoa ere, baizik eta justizia gabezia.

Horrekin guztiarekin batera, kolonizatutako mundu horretan hezkuntzaz hitz egin behar dugu, mundu horrek hezkuntzan atzera egiteko aparatu handia baitu.

Kulturak pentsarazi egiten digu, jende duina izanarazten digu, gure subjektibitatea elikatzen du. Gaur egun, hezitzea atzeranzko heziketa zapaltzaile horri gerra egitea da.

Eskolaren merkantilizazioa bizi dugu, MMEk (Munduko Merkataritza Erakundea) proposatu zuen, jada, hezkuntza salgai jartzea. Ondorioz, hezkuntza ez litzateke jendarteak bere seme-alabekiko duen betebeharrak, ez litzateke bere herrirekiko administrazioek izango luke ten betebeharra, ordaindu ahal izango lukeenarentzat izango litzateke, soilik.

Hezkuntzaz hitz egiten badugu dibertsitateaz hitz egin behar dugu. Ez dago nor inor baino jakintsuagoa denik. Kultura desberdinak eta sozialki osagarriak direnak daude. Desberdintasunak onartu behar dira, eta desberdintasun horiek ez ditugu dibergentzia bilakatu behar.

Hezkuntza prozesu gisa pentsatu behar dugu: parte-hartzea eta ikuspuntuak partekatzea eskatzen duena.

Jendartea hobetu nahi badugu, ezinbestez hobetu behar dugu hezkuntza.

Informazioaren gizartean bizi garen honetan, errealitatearen irakurketa kritikoa egiteko prestatu behar ditugu geure burua eta datozenena!

kronika

Nafarroako haurrek D ereduan eman dezaten izena, kanpaina bateratua egin dute Sortzen-Ikasbatuazek eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak. Leloak halaxe dio: “aukerarik onena, euskaraz”.

Egun, bi erakundeek 60 zentrotik gora dituzte Nafarroan, eta 16.000 neska-mutil biltzen dituzte D ereduan.

Kanpainako agerraldian Kristina Andres Sortzen-Ikasbatuazeko ordezkariak azpimarratu zuenez,

D eredua da egun ikaslea eleanitz egin dezakeen eredu bakarra. Murgiltze metodoari zor zaio hori, hizkuntzen ikaskuntzan emaitzarik onenak eskaintzen ari baita. Ez Euskal Herrian soilik, baita Europan eta mundu osoan ere. Etorkinei dagokienez, integrazioarako tresnarik onena bertako hizkuntzan murgiltzea dela gaineratu zuen.

Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Elkarteko bozeramaleak euskara jakiteak eta erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu zuen, bai nafar gizarteko errealitate bizia delako, eta baita gure herriaren kultur ondarea delako ere.



157 funtzionarioen hizkuntza eskakizunean ez da atzera egingo

Bilboko Bertendona ikastetxean itxita dauden irakasle funtzionarioen auziak presio mediatikoa eta politikoa harrotu ditu martxoan zehar. EAeko irakasleok euskarazko hizkuntza eskakizuna lortu ez dutela-eta kexu dira. Batetik, Iralek “euskalduntzeko ez oomen duelako balio” (datuen arabera, sare publikoan Iraleren bidez irakasleen %80k lortu du eskakizuna betetzea). Bestetik, hizkuntza eskakizuna betetzeari baino ebaluazio iraunkorrari garrantzia handiagoa emateko eskatu dute (Iralek hizkuntzen irakaskuntza munduan estandarizatuta dauden formulak erabiltzen ditu). Funtzionarioen lan baldintzei dagokienez, kexu dira egonkortasuna galduko dutelako (beste postu bat jarri zaie aukeran).

1993an onartu zen irakasleen lanpostuen hizkuntza eskakizunei eta derigortasun datei buruzko dekretua. Orduetik, hizkuntza eskakizuna lortzeko epe muga bitan atzeratu da. Iaz, Hezkuntza Saila sindikatuarekin elkartu zenean, LABek epe muga hori berriro ez atzeratzeko eskatu zuen. Beraz, abuztuan amaitzen zen hizkuntza eskakizuna betetzeko epea. Azterketa gainditzea lortu ez dutenak (asko hiru urtez liberatuta egon dira euskara ikasteko) 157 irakasle dira. Horiei aukera eman zaie postu bat hartzeko eta Iraleko txandak agortu gabe zeuzkatenean berriro ere ahalegina egiteko. Gainerakoa, egonkortasuna galduko dute eta ordezkapenen zerrendatan sartuko dira.

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak BERRIA egunkarian adierazi zuenez: “Zer egin behar duten esan zaie: ikasi, ikasi eta ikasi, beste edozein herritarrek funtzionario izan nahi badu egin behar duen moduan. Administrazioan eredu izateko gaude”. Zerbitzu publikoak gizartearen eskaerari erantzun egin behar diola gehitu zuen: “B eta D eredua eskatzen dute hamar gurasotatik 9,2k”. Hain justu, ereduok berraztertzea da hurrengo pausoa, Anjeles Iztueta-aren esanetan: “A ereduak ez duelako euskalduntzen, eta B eta D ereduak tokian-tokian gehiago edo gutxiago euskalduntzen dutelako”.

Estatuari atxikimendua dion komunitate akademiko organikoak, beren batzar nazionaletan, generoaren edo immigranteen, edo ijitoen edo delakoen gaiak erabiliko ditu, baina ez nazio menperatu bati dagozkionak: linguistikoak, kulturalak, politikoak eta abar. Hau guztia *ventada da*.

Paulo Iztueta



Iparraldean kolektibo bat osatu dute hizkuntza politikan euren ahotsa entzun dezaten.

Eredu publikoko, pribatuko eta Seaskako irakasleek bat egin dute, Frantziar estatua hizkuntza politika zehazten ari den honetan, benetan euskaldunduko duen eskola eskatzeko. Kolektiboa bigarren mailako 62 irakasleek osatu dute.

"Hizkuntza neurgailu guztiek alarma gorria erakusten dute jakinarazi zuten Otxanda Larzabalek, eredu publikoko irakasleak-, transmisioa eten da eta euskararen geroa zalantzan da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan". Egoera larri horretan, eskolaren funtzioa hil ala bizikoa da, eta aldiz ez omen da bere helburuak betetzera iristen. "Eskolak zenbat euskaldun sortzen dituen jakin nahi dugu eta uko egiten

diote funtsezko galdera hori erantzuteari", gaineratu zuen Larzabalek.

Hiru sareetako irakasleek errealitatearen diagnosi bateratua osatu dute, zailtasunak zein diren azpimarratuz: gela elebidunak edo hautabideak irekitzeko trabak, egun daudengelak atxikitzeko zailtasunak, ikastetxe teknikoetan eta profesioaletan ez egotea, edo azterketa eta agirietan euskarazko irakaskuntza ezagutua ez izatea.

Kolektiboak eskaera zehatzak luzatu dizkie botere publikoei euskarazko irakaskuntza eraginkorra izan dadin: euskararen ezagupen ofiziala, ikasleak zinez euskaldunduko dituen eredu garatzea, oren kopuru berezia, eskaintza orokortzea eskualde guztietan eta gutxieneko kopururik gabe, euskarazko ikasketen ezagupen berezia edota azterketak euskaraz egiteko aukera dira, beste askoren artean, eskatzen dituzten neurri zehatzak.

Ez dira gutxi azkenaldian gobernu frantsesak euskarazko irakaskuntzari egindako mehatxuak: Fillon erreforma, zerbitzu gehigarri buruzko dekretua... 2005-2006 ikasturterako Pirinio Atlantikoetako Departamenduan 70 irakasle postu kenduko dituztela ere iragarri dute. Motibo bategatik ez bazen besteagatik, martxoan ere gurasoek hainbat eskola okupatu dituzte (Atharratzen, Hazparnen, Kanbon, Larrainen, Paun...).

Haurreskolak sareko langileak grebarako prest agertu dira, euren baldintzak hobetu ezean.

Haurreskolak sare Hezkuntza Sailak sortu zuen 2003ko abenduan Lan Sailarekin eta proiektuan sartzeko prest zeuden udalekin batera. ELA, LAB eta EILAS sindikatuek salatu dutenez, oso "modu eskasean" sortu zuten, eta "interes handiagoa jarri dute propagandan, ikastetxeak hornitzen baino". Haur eskola horiek 11 orduz daude egunero zabalik, urtean 11 hilabetetan. Sindikatuen esanetan, "ez dute baldintza horiek exijitzen dituzten baliabideak erabili nahi".

Talde bakarreko eskoletan hezitzaileak bakar-bakarrik egoten omen dira egun osoan, ordezko lankidea etorri arte, eta horietako zentro askotan telefonorik ere ez omen dago. Janariari dagokionez, zentro berrietan gurasoek eraman behar dute haurren jatekoa, bertan berotzeko; sare sortu aurretik zabalik zeuden eskoletan sukaldariak prestatzen du bazkaria, baina sindikatuek adierazi dutenez, "horien iraupena kolokan jarrita dago". Zerbitzua, gainera, ez dela doan ematen salatu dute: zortzi orduko zerbitzuagatik 180 euro ordaindu behar dira, eta bost ordukoagatik 135 euro.

Sindikatuen esanetan, diru laguntzak jasotzeko baldintzak zorrotzegiak dira eta dirua urte bukaeran jasotzen da, beraz, gurasoek aurretik dirua jarri behar dute, gero laguntza izango ote duten edo ez jakin gabe.

Autoritatea mugak jarri ezinik





Mugarik eza askatasunarekin nahastean

Mugak jartzea, EZ esaten jakitea, horixe da egun gurasoei gehien kostatzen zaien gauzetako bat. Alegia, beren autoritateari fobia diotela gaurko helduek. Kontsumoaren eta libertatearen gizarte honetan, izan ere, zaila da mugak zerbait aurrerakoi bezala aldarrikatzea. Gaur libre izatea ardurarik ez hartzea baita, nahi duzunean alde egitea, nahi duzuna izatea (izan eta eduki, aditz bera dira kontsumoaren gizartean). Mugarik ez, loturarik ez, erantzukizunik ez. Etxeak Peter Pannez beteta.

Autoritate hitza autoritarismoarekin nahasten da gaur, larderiarekin, inposizioarekin. Eta izatez, autoritatearen definizioa zera da: "Agintzeko eta obeditua izateko eskubide eta boterea. Norbaiti gai batean aitortzen zaion sinesgarritasuna; pertsona hori bera" (Elhuyar-en Hiztegi Entziklopedikoa).

Gizartean egun dagoen autoritate krisia erregimen faxistaren pean 40 urtean bizitzeak ekarri duen ondorioa da, hein batean. Hala azaltzen du Javier Elzok, Deustuko Unibertsitateko Soziologia irakasleak: "Horri trantsizioa egin zuen belaunaldiak 68ko maiatzeko maxima ezarri zuela gehitu behar zaio, 'debeztatzea debeztatuta' zioena. Horrek eskubideen gizarte mota bat ekarri du, eskubideei dagozkien betebeharririk eta erantzukizunik gabea. Inork ez du ezerean ardurarik hartzen, erantzukizun denak besteengan uzten dira. Familiaren ere berdin, jakina. Ezer okertzen denean errua eskolarena da, telebistarena, gizartearena, bestearena (aitarena, esango du amak, eta alderantziz). Seme-alabak eskubideen subjektu soil bihurtu dituen klima batean hezi dira, eta arduren subjektu, berriaz, apenas diren. Esne-mamitan ditugu... nahiz eta

oso denbora gutxi eskaini, egiak esaten hasita".

Autoritarismoan erortzeko beldurrez beste muturrera joan gara: autoritate izpiena ere debekatu, desagerrarazi dugu. "Gaur inork ez du autoritaterik eduki nahi -baieztatzen du Polaino irakasleak-, inork ez du ezer pertsonalizatu nahi, hobe masa anonimo eta formarik gabea izan, hartara ez baikara ezerean erantzule. Hori helduoi gertatzen bazaigu, nola eskatu gero haur bati irakaslea errespetatzeko, bere gurasoek sekula ez dutenean autoritaterik gauzatu haur horrekiko?".

Autoritaterik ez badago, haurrak ez du erreferentziarik eta gobernua berak hartu behar du. Eta kaosa sortzen da. Autoritatea hartzea kostatzen zaien gurasoentzat, badirudi haurra pozik edukitzea behar dela beti, eta berehala, gainera. Haurra zapuzten den bakoitzean zerbait egin behar da pozik egon dadin. Ondorioak, ordea, ez dira hain gozoak haurraren, adituek diotenez: gutziak eta maniak izateko joera edukiko du, eta arazoak izango ditu frustrazioei aurre egiteko, itxaroteko, ahaleginak egiteko, bere burua lasaitzeko eta haserrea kontrolatzeko.



G

Autoritate okerra

- Mugak ez jartzea haurra ez gogaitzeko.
- Ezetz esaten ez jakitea.
- Amore ematea ezetz esan ondoren.
- Arau-haustearen neurriko zigorra barkatzea, haurrak behin eta berriro eskatu duelako.
- Elkarrizketarik edo negoziatorik ez izatea, edo berriketara hutsean erortzea.
- Asertzio, autoafirmazio jarrerak ez sustatzea.
- Emozioekin ez enpatizatzea.
- Aginduak ez betetzea.
- Koherentziarik eza gurasoen artean: batakatu egiten dio besteak egiteko esan diona.
- Ez entzutea. Entzun aurretik errieta egitea.
- Gero eta oihu ozenagoak egin behar izatea emaitzak lortzeko.
- Umilatzeko oihuak.
- Etiketak jartzea (“alfer hutsa zara”, “zeurekoia zara...”).
- Hizkera abstraktua erabiltzea.
- Ahalegina kontuan hartu gabe emaitzak exijitzea.
- Konparazio gorrotagarriak egitea.
- Haurrarekiko errespetua galtzea, gurasoek euren-etzako espazioak izan ditzaten.

Erreferente falta

Seme-alabek bizitzarako balioko dieten erreferenteak behar dituzte, eta erreferente horiek eskaintzea gurasoen funtzioa da, eskolarena baino gehiago. Horrek ez du esan nahigurasoek autoritarioak izan behar dutenik (benetako autoritatea komunikaziotik eta eredu izatetik dator), baizik eta familiek berreskuratu egin behar dutela euren seme-alaben heziketan duten paper nagusia. “Nork hezitzen du egun? Javier Elzoren hitzak dira- Gurasoek ez, biek kanpoan lan egiten dute-eta. Eskolak ere ez, eskolari notak eskatzen baitzaizkio, heziketaren gainetik. Gaurko sozializazioan garrantzitsuenak lagunak dira, kalea. Telebista bera baino gehiago. Baina lagunek ere behar dute erreferentzia helduago bat. Gaur gaztea izatea oso zaila da, norberak bere eredia egin behar baitu erreferentziarik gabe. Tapa-rik gabe milaka piezako puzzle bat egitea bezala da. Zeuk asmatu behar duzu zeure proiektua, zeu bakarrik zara zeure buruaren erreferente, eta oso gogorra da hori. Etorkizuna oso irekia dago, ez dago mugarik, badirudi nahi duzuna izango zarela, eta ez, ez da hain erraza”.

Psikiatraren kontsultara jotzen duten nerabe asko eta askoren arazo iturria, gurasoen autoritate falta omen da. Bartzelonako Sant Joan de Déu Hospitalako psikiatria buruak, José A. Aldak, horixe azpimarratzen du: “Gurasoarena egin beharrean koadrilakoarena egiteko joera egon da, eta hori eroso da, baina ez da komeni dena. Gauza bat da hurbilekoa izatea, eta beste bat da paperak aldatzea. Nerabeak sekula ez dira gaur bezain galduta egon”. Froga moduan bere ospitaleko datuak jartzen ditu: sei urtean, psikiatriako larrialdi zerbitzuetara jo dutenen kopurua hiru aldiz biderkatu da. Horietatik % 30 jarrera nahasteek betetzen dute (agresibitatea, biolentzia pasarteak, nortasun gorabeherak). Kasuen % 23 antsietate krisiengatik da. Eta gainerako % 15 suizidio saiakerak osatzen dute. José A. Alda psikiatraren arabera,

suizidio saiakeren kopuruak gora egin du, eta kasu askotan, gaztea heriotza desio izatera daramaten arazoak beste garai batzuetan jasateko modukoak izango omen ziren. José A. Aldak hala dio behintzat: “Gaurko nerabeak beste belaunaldiak baino gutxiago daude ohituta esfortzura, eta frustrazioa onartzeko ezintasun larri baten aurrean gaude”.

Frustrazioaren belaunaldia

“Frustrazioaren belaunaldia da gaurkoa. Egun ezinezkoa den kontsumo batera bultzatzen gaituzte etengabe, eta nerabea gatazkan sartzen da berak desio duenaren, munduak desio behar duela esaten dion horren eta benetan lortu dezakeenaren artean. Orduan tentsio puntua azaltzen da, eta biolentzia”. Jaume Funes psikologoak esana da. Kontsumoaren gizarte honen, indibidualismoaren gizarteak, sortzen dizkigun nahiak, desioak, jo mugak ez datoz bat gure aukera errealekin, eta desoreka horrek etengabeko frustrazio egoera sortzen du. Paulino Castells-ek “depresiora kondentutako gazteria” izendatu du gaurkoa, eta halaxe du deskribatzen: “Bulkadak kontrolatzeko kapaz ez diren gazteak, beren desioekiko frustraziorik txikiena ere onartzen ez duten gazteak, egunetik egunerako berehalakotasunean sartuta bizi diren gazteak. Hazteari eta gurasoen etxea uzteari beldurra. *Homo ludens*-bizitza jolasa da- eta *homo videns*, pantailei itsatsita. Boterez gainezka dauden gero eta gazte gehiago pasatzen dira kontsultatik, familiaren manipulatuak direnak, gurasoak dardarka dituztenak. Mutikook, ezagutzera iristen zarenean, zer izango eta ziurtasunik gabeak dira, erabat. Agintzaileak bai, baina barrutik ziurtasun falta totala. Gajoak. Zeren, gainera, esan egiten baitizute: ‘nik ez nuen hainbeste botererik nahi, eman egin didate gurasoek, nik mugak jarriko zizkidaten gurasoak nahi nituen’. Eta hori egunero ikusten dut kontsultan”.

G

G A I A

Autoritatea

mugak jarri ezinik



Gurasoen etxean bapo

Egunero dirua poltsikoan, logelan zure telebista, ordenagailua eta Internet... "Aukera gehiegi izateak, askotan, zera eragiten die nerabeei: benetan galduta sentitzea -dio Alejandra Vallejo-Nágera psikologoak-. Eta baita ere, konkistarako gogo hori galtzea. Hain erraz lortzen dituzte helburuak, ez dutela ahalegina baloratzen. Ahalegin handi batek zeu bakarrik moldatu izanaren sentsazio indartsua ematen dizu, eta sentsazio gogor hori egun lanbrotu egin da, gure seme-alabek bitarteko gehiegi dituztelako euren alde".

Gurasoen etxetik gero eta beranduago independizatzea da horren adibide. Akaso amaren gonapetik ez alde egiteko motibo nagusiak etxebizitzaren prezio neurrigabea eta lanaren egonkortasunik eza izango dira. Baina gaurko mentalitateak ere ez du askorik la-

guntzen; INJUVEk (Gaztediaren Institutuak) 2002an egindako iritziz sondeoa azaltzen duenez, Espainiako estatuko gazteen iritziz independizatzeko hilean 1.000 euro behar dira gutxienez. Gutxienezko kopuru hori, izatez, subjektiboa da, lotura zuzena baitu bere kasa bizitzaren truke gaztea egunero ko gastuetan egiteko prest dagoen murrizketekin.

Gazteak hain berandu emanzipatzeak bere ondorioak ditu gizarte mailan ere. Javier Elzoren hitzetan, "jada ez dago gazte kulturarik. Gurasoen baloreak eta gazteenak gutxi gorabehera berdinak dira, beti elkarrekin baitaude". Hainbeste urtean elkarrekin bizita, ez dago belaunaldi hausturarik. Gazte belaunaldiaren egitekoa aurrekoen eskemak haustea da, baina Elzok dionez, "egun gurasoek pentsatzen duten antzera pentsatzen dute seme-alabek, bizitza ikusteko molde bera dute".

Autoritate positiboa

- Mugak jarri eta haurren haserraldia jasatea.
- Hitz egitea eta negoziatzea. Baina batzuetan, hitz egin eta entzun ondoren, gurasoak egokitzat jotzen duen arauari eutsi behar dio. Ez da egokia amaierarik gabe hitz egiten jardutea.
- Salbuespenak kontuan hartzea.
- Haur bakoitza ezberdina dela kontuan izatea.
- Arau malguak, hazkuntzari egokitzen doazenak, gero eta autonomia gehiago emanez.
- Entzutea.
- Emozioekin enpatizatzea.
- Haurrak amorratzen duen arau baten aurrean sufritzen badu, bere onerako dela jakitea. Batzuetan "gogorra" izatea maitasun ekintza da.
- Gurasoen artean ados jartzea, haurrei mezueta kontrasesanik ez adierazteko.
- Hizkera argia eta zehatza erabiltzea.
- Eman denbora ikasteko. Ez exijitu gehiegi.
- Etsenplua ematea norberaren jarrerekin.
- Haurrari bere ekintzen ondorioak bizitzen uztea.
- Mementoan zerbait egin behar bada, sermoirik ez: ekin.
- Baloratu haurrak hobetzeko egiten dituen ahaleginak.
- Onartu zeure akatsak. Esan haurrari zer sentitzen duzun, nahastu egin zarela zeure onetik atera zarelako...
- Baloratu haurrak autoafirmatzeko dituen jokabideak.

* Iturria: Ernesto Maruri. "Agintea aginpidea da". Seme-alabak aldizkaria, 7. alea, 2004ko martxoa.

Jose J. Girón: "Arauk jartzea kostatzen zaigu, geure buruarengan soilik pentsatzen dugulako eta neurritz kanpo babesten ditugulako haurrak"



Jose J. GIRÓN

Psikologoa

AGIRIAN kolektiboko kidea

Familia eredu autoritario izatetik kaotiko izatera pasa da. Zergatik dago gaur arauak jartzeko beldur hori?

Batetik, guraso bakoitzak bere buruarengan soilik pentsatzen duelako: garrantzitsuena (edo kasik) une horretan bera nola sentitzen den da. Gaur inportantea den arauak bihar ez dio axola, baina haserre badago hil ala biziko bihurtzen da. Neurria gurasoak egun horretan duen umorea da. Beraz, haurrari gurasoaren aurpegia begira dezan eskatzen zaio, eta asma dezala noraino xaxatu. Gurasoak pena sentitzen duen unean, akabo: gertatutakoa ahaztu egiten du, "ez du axola". Garrantzi gehiago ematen baitio berak sentitzen duenari, benetan guraso bezala egin behar lukeenari baino. Akaso kriterioak argi izatea falta zaigu, baita etika mailan ere, eta seme-alabak nora heltzea nahi genukeen pentsatu.

Bestetik, seme-alabak neurritz kanpo babesteko dugun jarrera izugarria

da. Haurrak sufritu ere egin behar du ikasteko, heltzeko, bere ekintzen arduradun egiteko, eta hori gurasoek onartzen ez jakiteak bihurtzen ditu 17 urteko seme-alabak pertsona dependiente, arduragabe eta ume hutsak. Hainbesteko beldurra diogu sufritzeari, etengabe erremedio merkeak jartzen ditugula halakorik gerta ez dadin.

Mugak argi ez badaude, zer gertatzen da?

Seme-alabek mugaren ertzean jolasten dutela, batetik gurasoa tentatzeke, eta bestetik botere sentsazioa ematen dielako (eta gainera, azkenean nahi dutena lortzen dute). Egun osoa mugan jolasten aritzeak sortzen duen tentsioa izugarria da. Mugak zenbat eta argiago egon, orduan eta hobeak izaten dira harremanak, bakoitzak badakielako joko arauak zein diren.

Nola bihur daiteke arau sistema kaotiko hori sistema demokratiko?

Gizarteak berak erakusten du: arau bakoitzak ondorio bat du. Zuk aurrez badakizu (eta hori da, azkenean, nor bere jarreraren arduradun eginarazten duena), autopistan 160an joanda isun arriskua duzula. Hortik aurrera, zerorrek hautatzen duzu zer abiadan joan, baina ondorioa zeure gain hartuz.

Familian berdin behar luke. Arau bakoitzak alde aurretik zehaztuta eduki behar du bere ondorioa, eta hori bete egin behar da, zuzenean. Ez da araua bost aldiz gogorarazi behar, horrekin txarrean esan arte ez dela ardura hori bete beharrik ikasten baitute. Polizia bihurtzen gara, eta ez, gauzek gainean egon gabe funtzionatu behar dute. Horretarako, egin behar dudana lehenengo gauza, gainean ez egotea da. Horrek, nahiz eta gauza asko egin gabe geldituko da.





G A I A

Autoritatea

mugak jarri ezinik

G

tzea ekarri epe motzera, prozesu zabalago baten parte dela ikusi behar da.

Beste arazo bat da familiako arau sistema erotzekoa dela: arauak gutxi eta argiak izan beharrean, asko eta oso zirriborrotsuak dira.

Rolak nahastu ote ditugu? Gurasoek euren seme-alaben koadrilako izan nahi al dute?

Laguntasuna beharrezkoa da harreman denetan, baita guraso-haurren artean ere. Gakoa da, laguntasun horrek ez duela autoritate berdintasuna esan nahi.

Haurra errespetatzen baduzu, modu positiboan hitz egiten badiozu, eta sentitzen badu entzuten diozula, ulertzen eta baloratzen duzula, horixe da laguntasuna. Lagunarteko harremanek duten gauzarik onena, faltan dutena da: alegia, elkarbizitzako eguneroko urratu hori. Eta horixe da familiak duen alde txarra. Baina familiak ezin du alde txar horretan ito, onetik duena ahaztuta. Familiak landu egin behar du normaltasuna, eguneroko bizitza, eta gainera laguntasuna, elkar-entzutea hobetzen saiatu behar du.

Arazoa ez da hainbeste seme-alaben lagun izan edo ez, baizik eta beren mailara jartzea. Hor jada ez baitago autoritaterik, zure hitzak nereak adina balio du, dena ikuspegi kontua da. Eta ez horixe, familiako kontu batzuetan, balio duena gurasoen hitza da, lehendik esperientzia dutelako edota, besterik gabe, helburu oso argia dutelako. Gauza bat da arauak eztabaidatzea, eta beste bat erabakiak hartzea. Erabaki batzuk adostasunez hartzen dira, beste batzuk demokratikoki, eta beste batzuk norberak hartu beharrekoak dira.

Zein dira, zure iritziz, gurasoak hartu beharreko erabakiak?

Printzipioz, hartzen direnak baino gutxiago ("hemen nik erabakitzen dut" formulara sarriegi jotzen dugu). Ia beti justifikatuta daude bizia arriskuan jartzen duten egoerei lotuta daudenean, edo osasunarekin zerikusia dutenean. Gero familia bakoitzak bere printzipioak ditu, bere erreferente etiko, erlijioso eta humanoak, eta horiek ere gurasoek markatzen dituzten mugak dira, finean. Parekoarekiko errespetua baduzu, askotan ez du hainbeste axola zeu zaren araua jartzen duena. Arrakastaren erdia azaltzeko modua da.

Gurasoak bi direnean, normalean bat da arauak jartzen dituen.

Haurrekin harreman gehiena duenak bete ohi du paper hori, eta estatistikoki hori ama da (betiko rolekin jarraitzen dugu!). Sarri bere kexa da aita edo beste figura ez dela sartzen, onerako soilik dagoela. Baina horren ardura, askotan, amarena da. Amak hitz egiten badu, aitak ez baitu hitz egingo; amak jokabide bat zuzentzen badu, aitak ez du zuzenduko. Askotan konponbidea aitari ekiteko exijitu beharrean amak berak ez ekitea litzateke; pertsona bat falta denean, bestea agertzen da.

Komeni al da bietan bat izatea arauak jartzen dituen, edo hobe da rol hori txandatzea?

Egungo arazo nagusietako bat da (egia esan beti egon izan da, baina lehen nolabait konponduta zegoen), familiak heziketa proiekturik ez duela. Lehen bazen heziketa proiektu bat: estatua. Eta nola gizarte hartan dena bat zetorren, bazenekien nola ziren kontuak. Egun, askotan andre-gizonek

benetan haurrak hezitzerakoan ezagutzen dute elkar. Sarri entzuna dut "nire senarra zer karka den! Sekula ez nuen pentsatu ere egin botatzen dituenak botatzeko kapaz izango zenik", sexualitate gaietan, esaterako, eta agian 15 urte daramate elkarrekin bizitzen. Baina ez dira gai izan aurrez hitz egiteko euren seme-alabekin nola landuko duten sexualitatea. Heziketa proiektu falta horri hezitzerakoan dagoen kriterio falta gehitzen zaio. Oinarritzko kriterio bat zera da: seme-alaben aurrean gurasoek ez dutela hasi behar batek baieztaka eta besteak ezezka. Beraz, saia gaitezen elkarrekin. Ezin badugu, hitza aurrea hartzen duenak bideratu beharko du gatazka, eta hurrengoan egingo du besteak. Koordinazioa behar da.

Ez da araua bost aldiz gogorarazi behar, horrekin txarrean esan arte ez dela ardura hori bete beharrik ikasten baitute. Polizia bihurtzen gara, eta ez, gauzek gainean egon gabe funtzionatu behar dute.



Gurasoen kezka nagusia da euren burua nola kontrolatu zerbait gertatu eta lehen 15 segundo horietan. Automatikoki erreakzionatzen dute, modu agresiboan. Justu hori bera da seme-alabek gehien gorroto duten unea.

Seme-alabek ikasten duten gaurerako bat aita eta ama izateko eredia da, eta familian bizitzeko eredia.

Pentsatuko bagenu, egoera askotan gure jokatzeko modua aldatu egingo genuke. Esaterako, haurrak oso ohituta daude gurasoen arteko haserreak ikustera, eta aldiz, ia inoiz ez dute ikusten nola adiskidetzen diren. Gatazkak konpontzeko eredurik ez diegu ematen.

Gurasoen beste jarrera oker batzuk hauek dira: oihukatzea, mehatxu egitea, gehienbat alde txarrean erreparatzea, edo euren arazoak konpontzea, konpondu behar ez dizkiegunean. Oinarrizko oinarrian, ez diegu entzuten, eta oso gutxi ezagutzen ditugu; eurek askoz gehiago ezagutzen gaituzte.

Zergatik da neurritz kanpo babesteko joera hori?

Neurritz kanpo babesteak duen helburua gurasoa bere buruarekin ondo

sentitzea da; dena kontrolpean dagoela sentitzen baitu. Horretarako, nahia go du berak janztea haurra, azkarrago bukatuko baitu.

Rol hori gehienetan amari dagokio. Ama, jada, gauza guztien erantzule da: bere bizitzaren erantzule da bai emakume gisa, bai bikote gisa, etxetik kanpoko langile gisa, etxeko langile gisa, ama gisa. Senarraren ardura ere berak du. Beregain duen karga horrek denak inguruko pertsonetik oso harreman txarra sortzen du.

Seme-alabei dagokienez, berriz, neurrigabe babesteak justu heziketa helburuen kontrako ondorioak ditu; pertsona autonomoak eta arduratsuak sortu beharrean, pertsona dependienteak eta arduragabeak sortzen ditu.

Guraso eskolatan zein da gehien azaltzen den kezka?

Euren arazo zehatzaren konponbidea nahi izaten dute, eta finean haurren jokabidea aldatzea da bilatzen dutena. Aldiz, arazo bakoitzak ez duela erantzun bakar bat ikasten dute, milaka aukera daudela eta norberak jakin behar duela horiek egokitzen. Benetan behar dutenaz jabetzen dira, hau da, aldatzea pertsonalerako prozesua hasi behar dutela. Eta aldatu behar duena nor den konturatzen dira: ez etorri ez diren pertsonak, baizik eta etorri den hori. Lehenengo shock-a horixe da.

Gurasoen kezka nagusia da euren burua nola kontrolatu zerbait gertatu eta lehen 15 segundo horietan. Burua laino, automatikoki erreakzionatzen dute, modu agresiboan. Justu hori bera da seme-alabek gehien gorroto duten unea: gurasoak kontrola galdu duela ikusten duteneko.

G A I A
Autoritatea
mugak jarri ezinik

G

2005-06 eta
2006-07
ikasturtetarako

GIDA



V.
Euskal Herriko
baliabide
pedagogikoen

GIDA

Irailean berritua

GIDA liburuaz gain, aurten,
euskarri digitalean izango duzu

maddalena
tedeschi

sandra
piccinini

Maddalena Tedeschi pedagogo eta
Sandra Piccinini Reggio Emilia
Instituzioko lehendakaria



Udal haur eskolak hiriarenak
dira, hiritar guztienak. Denek
sinesten dugu proiektuan eta hori
funtsezkoa da.



maddalena
tedeschi
sandra
piccinini

E

Familiak
baldin badira
eskola
defendatzen duten
lehenengoak, oso
zaila da udal
administrazioa
hiritarren aurka
joatea. Hori izan
da gure indarra
eta gure eskolak
defendatzeko
modua

Herriak berezitasunen bantengatik bihurtzen diren eza-
gun munduan zehar. Ospe-
tsuak dira Gemikako piperrak,
Portugaleteko zubi zintzilika-
ria, Iantzeko inauteriak, Idia-
zabalgo gazta... Bada, Italiako
Reggio Emilia herrian bertako
udal haur eskolak dira fana-
tuak.

Herri osoa inplikatzeari lotu
duen proiektua orain dela 31 ur-
te sortu zen, eta erreferentzia
bilakatu da munduan zehar.
Leku askotatik joaten da jen-
dea Reggio Emiliako esperien-
tzia bertatik bertara ezagutze-
ra. Alderantziz ere gertatzen
da; hango pedagogoak eta ar-
duradunak ere ateratzen dira
kanpora. Azken bidaiak Euskal
Herrira egin dute. Sandra Picci-
nini Reggio Emilia Institutuziko
lehendakaria eta Maddalena
Tedeschi pedagogo gure arte-
an izan ditugu, elkarrekin Hik
Hasi jardunaldietan.

Italianrek berezko duten
graziarekin eta umorearekin
aritu dira 300 lagunen aurrean
azalpenak ematen eta Reggio
Emiliako esperientziaren non-
dik norakoak azaltzen. Argi gel-
ditu da oinak lurrean dituztela,
eta ez direla ideia teorikotik
galduta gelditzen. Egunero-
egunero daude haurrak, fami-
liak, hezitzaileak, garbitzai-
leak eta sukaldariak elkarrekin
eta hor sortzen dira elkarriketa
eta elkarbizitza.

**Nola irudikatu behar ditugu Re-
ggio Emilia herria eta bertako udal
haurren eskolak?**

Sandra.- Biak bat eginda. Reggio
Emiliako ezaugarri nagusietako bat es-
kolek hiriarekin duten lotura indartsua
da. Haur eskolak udal haur eskolak di-
ra, herrikoiak. Hiria harro dago bere
haurren eskolekin, eta hori zerbaitegatik
da.

Maddalena.- Gure proiektu peda-
gogikoaren giltzarrietako bat haurren,
hezitzaileen, gurasoen, komunitate-
ren eta hiriaren arteko elkarriketa da.
Hori da oinarririk funtsezkoena ibilbi-
de osoan zehar.

Eskolak sortu ziren unetik beretik
egin dira ikusgarri hiriarentzat. Hau da,
gure proiektu pedagogikoa ez da esko-
la barruan giltzapeturik gelditu. Esko-
lak kanporantz zabaldu nahi ziren hi-
riari eskolak zer diren erakusteko. Eta
baita haurrei eskolatik ateratzen lagun-
tzeko ere. Hirira joan eta beren pentsa-
mendua eta kultura ezagutzera ematea
izan da xedetako bat. Beste modu bate-
ra esanda, haurtzarora ikusgarri bihur-
tzea eta haren trebeziak eta haurrak
dauzkan eskubideak bultzatzea izan da
abiapuntua.

**Udal haur eskolak izanik, udalari
lotuta daude. Zentzu horretan, udal
governu aldaketak proiektua aldatu
izan al du? Politikoen joerak nabaritu
al dira?**

Sandra.- Udaleko politikak badu
zerikusia. Udaletxean beti ezker-
ra egon da, II. Mundu Gerraz geroztik.
1995ean zentro-ezkerrekoak jarri zen, kato-
likoak eta ezkerrekoak. Horrek ez zuen
ekarri, ordea, inolako aldaketarik uda-
lak haur eskolen gainean zuen jarrerari
dagokionez. Orain zentro-ezkerrekoak ja-
rraitzen du boterean, baina alkatea zen-
trokoa da, ez ezkerrekoak.

Aldaketa horien aurrean eskolak
batzuetan beldurtu egiten dira, udala-
ren interesa jaits litekeela pentsatzen
dutelako. Eta zenbait mementotan hori
pentsatzeko arrazoia egon da. Mala-
guzzi bizirik zela ere une zailak egon zi-
ren. 90eko hamarkadaren hasieran ez-

kerra zegoen alkatetzan eta eskolak estatalizatzeko saiakera bat egon zen, diru asko kostatzen zirelako.

Arazoa da zenbateko arreta lortzen den udal gobernuaren aldetik. Hori beti maila altuan eduki beharreko tentsioa da, bai udalarekin, bai familiekin eta bai hiriarekin. Familiak baldin badira eskola defendatzen duten lehenengoak, oso zaila da udal administrazioa hiritarren aurka joatea. Hori izan da gure indarra eta gure eskolak defendatzeko modua.

Bestalde, udal haur eskolak Reggio Emilia Instituzioaren barruan daude eta horrek ere berme bat ematen du.

Zer da Reggio Emilia Instituzioa eta zein da bere funtzioa?

Udalaren barruan dagoen instituzio bat da eta 0-6 urteko udal haur eskola guztiak bere baitan biltzen ditu. Udaletik eratorri arren, erakunde autonomoa da. Udaletik jasotzen duen dirua berak kudeatzen du eta administrazio kontseilu bat dauka.

Instituzioak udalari diru eskaera edo proposamen bat egiten al dio ala udalak erabakitzen du zenbat eman?

Udalak aurrekontu finko bat ematen digu. 19 milioi euro ematen dizkio udalak instituzioari urtean (udalaren aurrekontu orokorraren % 17 inguru). Instituzioak 25 milioi euroko aurrekontua du. Beraz, horrekin iristen ez dena beste iturri batzuetatik lortu behar izaten du: familiak, instituzio probintzialak eta eskualdekoak, estatua, eskumen pribatuak... eta Reggio Children fundazioa. Elkarte publiko-privatu gisako bat da, arlo pribatuan lan egiten duena, baina ateratzen duen dirua haur eskoletan inbertitzen duena. Liburuak eta materialak salduz, ikastaroak antolatuz eta abar ateratzen du dirua.

Ez al duzue pribatizatzeko arriskurik ikusten?

Ez, instituzio publikoa garelako, oso garbi daukagulako publikoak garela eta herritarren babesa daukagulako.



Nola dago antolatuta 0-6 etapa lege aldetik?

0-3 etaparen kasuan ez dago lege estatalik, eskualdekoak baino ez. Beraz, Italia osoan egoera desberdina da, eskualdearen arabera aldatu egiten da. Estatuak ez du diru laguntzarik ematen haur eskolak sortzeko. Salbuespena enpresekin egiten du: bere langileen haurrentzat 0-3 haur eskola eskaintzen baldin badute, dirua jasotzen dute estatutik.

Gainontzean, udaleko 0-3 sare publikoaren barruan eskolak kudeatzeko modu asko daude. Reggio Emilian zuzenean udalak kudeatzen dituen 13 haur eskola daude eta beste 10 kooperatibak dira. Horiek denak Instituzioaren barruan daude.

3-6 urteko haur eskolei dagokienez, legeak hala dio: eskola ez da derri gorrezkoa, baina doakoa da. Kasu horretan, eskola estatalak eta ez estatalak daude, baina bien artean parekotasuna dago baldintza batzuk betetzen baldin badira: konstituzioa onartzea, proiektu pedagogiko bat aurkeztea eta esperientzia duzunaren frogagiria. Baldintza horiek betez gero, estatalek adina diru jasotzen dute ez estatalek. Gero, udalek garraioa, jangela... ordaintzen dituzte.

Familiak zenbateko kuotak ordaintzen dituzte?

0-3 etapan, lege estatalik ez dagoenez, dena udalek eta familiekin ordaintzen dute. Bost prezio daude: 90-400



euro artean hilean, eta errenta aitortpenaren arabera ordaintzen dute familiekin. Batez bestekoa 300-310 euro da.

3-6 etapan gehienez 180-200 euro artean ordaintzen dute eta prezioa finkoa da, ez errentaren arabera. Dena dela, zailtasunak dituztenek erdia ordaintzen dute.

Kexurik izan al duzue kuotak altuak direlako?

Ez, kuotagatik ez. Beharbada altuak izango dira kasu batzuetan, baina ez dugu erresistentzia handirik topatu. Zerbitzurik ez baldin badago kexatzen dira, ez diruagatik. Kalitatezko zerbitzuak eskaintzen baldin badira, nola baiteko itun bat egiten da hiritarrek.

Sandrarekin haur eskolei kanpotik begiratu ondoren, zurekin barrura sartuko gara, Maddalena. Nolakoak dira udal haur eskolak?

Maddalena.- Eskola guztiek dute sarrera handi bat eta helburua harrera egitea da. Sarreran bertan ikusten da eskolen nortasuna.

Gero erdiko plaza bat egoten da haurren eta helduen topagunerako. Leku zabala, abegitsua, eskolaren bihotza. Familiak ere bertan elkartu ohi dira eskola orduz kanpo elkarrekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko.

Eskola ataletan banatzen da, hau da, gelatan. Atal bakoitzak hiru zati ditu: erdigunea jolaserako, beste zati bat talde txikitik lan egiteko, eta hirugarrena tailerra. Honek horma gardenak ditu. Horrela, haurrek ekintza eta egoera

maddalena
tedeschi
sandra
piccinini

E

Pedagogiaren
eta arkitekturaren
arteko erlazioari
garrantzi handia
ematen diogu.
Esperientzia
pedagogiko on
batek harreman
ona behar du
arkitekturarekin,
eta beraz,
ingurunearekin

desberdinak ikusteko aukera dute. Eskola berrietan atal bakoitzak atsedera-ko lekutxo bat du. Hor haur talde txikiak biltzen dira une lasaiak pasatzeko hezitzaileekin.

Lorategia ere izaten dute eskolek, erdian, eta argitasuna ematen dute.

Sukaldea eta jantokia ere toki garrantzitsuak dira. Bazkariak eta askariak bertan egiten dira. Nolabaiteko laborategizat hartzen dira, familiei sukaldaritza lantzeko aukera ematen baitzaie.

Helduentzako lanerako espazioak ere badaude: dokumentazioa egiteko, prestakuntzarako, artxiboa edukitzeko eta erabiltzeko...

Gutxi gorabehera 800-1.300 m² artekoak izaten dira.

Pedagogiaren eta arkitekturaren arteko erlazioari garrantzi handia ematen diogu. Esperientzia pedagogiko on batek harreman ona behar du arkitekturarekin, eta beraz, ingurunearekin.

**Non dago zuen esperientzia praktikoa-
ren abiapuntua? Zein da zuen oinarri teorikoa?**

Reggio Emiliako udal haur eskolen proiektua hainbat oinarri teorikotan sostengaturik dago, eta horregatik, oso esperientzia konplexua da.

Lehendabizi, gogoeta filosofiko-pedagogiko bat dago: pentsatzea edozein pertsona jaiotzen dela adimentsu, eta beraz, edozein pertsona dela subjektu adimentsu eta ikasteko ahalmen

handiak dituen.

Horrez gain, pertsona guztiak, jaiotzen diren unetik beretik, harremanetan jartzen dira besteekin, inguruan daukaten munduarekin, baina oso modu aktiboan eta eraikitzailean. Topaketa eta elkarriketa horiek oso-oso garrantzitsuak dira guretzat. Gutako bakoitzak besteari segur aski modurik onenean begiratzen dio. Horregatik, gutako bakoitzak bestearengan halako begirada baikor bat jartzen du. Hori guretzat funtsezkoa da, alegia, halako energia bat, potentzialitate bat dago, kognitiboa eta emotiboa dena aldi berean, eta beste pertsonari balioa ematen diona. Eta hori guretzat funtsezkoa da.

Malaguzzik hala zioen: gutako bakoitza oso loturik dago bizitzarekiko, gutako bakoitzak elkarrekintzarako potentzialitate handia dauka bizitzaren aurrean, eta prozesu hori egoerarik txikienetik abiatzen da. Horregatik, bi haurren arteko edo talde handi baten arteko harremana ikusten dugunean, hasierako pentsamendua berdina da bietan.

Nola begiratzen diozue haurrari? Nola lantzen duzue potentzialitate hori?

Haurrari begiratzen diogunean aintzat hartzen dugu ez dela zaindu beharreko pertsona bat, baizik eta etengabe bilaketan dabilena, jakin-mina duena, aktiboa dena, ahalmen handiak ditue-





na. Haurrek jakin egin nahi dute, ikusi egin nahi dute. Eta noski, haurraren irudikapen horrek eskola mota bat behar du: eskola adimentsua, eskola ahalmentsua, trebea.

0-3 urteko haurrekin ikusten dugu nortasun subjektiboa eraikitzeke bes-teen beharra dutela. Hazteko eta beraien ideiak heltzeko besteekin harremanetan jarri behar dute.

Eztabaidatzea funtsezkoa da Reggio Emiliako eskoletan.

Bai, ezinbestekoa, esango nuke. Gauza guztietaz eztabaidatzen da. Eta horrekin batera, entzun, noski. Garrantzitsua da ikuspegi positibotik entzutea besteek esaten dutena, inolako epairik egin gabe besteei buruz. Eztabaidatzen dutenean, norberarena ez den beste ikuspegi bat bilatzen saiatzen dira; horretarako eztabaidatzen dute, beste ikuspegi bat ezagutzeko. Ez dugu beste konbentzitu behar, baizik eta hark esaten duena eta nirearengandik desberdina den ikuspegia ulertu behar ditugu. Ariketa dialektikoa da, tesien aurrez aurreko ariketa bat. Bestearen ikuspegia ezagutu eta guk hari buruz uste genuena berrantolatzea.

Gure eskoletan denek eztabaidatzen dute: haurrek haurrekin, haurrek helduekin, helduek helduekin... Malaguziren esperimentu filosofikoaren eta psikologikoaren ezaugarri garrantzitsu bat da eztabaida kognitiboa, pentsamenduarena. Ideien eta kontzeptuen eztabaida aberatsean sinesten zuen.

Zergatik da hain garrantzitsua eztabaidatzea?

Ni pedagogoa egin ari nintzen 0-3 haur eskola batean sartu zen Malaguzi eta oso gustura gelditu zen giroarekin, harremanekin... Gero 3-6 urte-

koen haur eskola batean sartu ginen eta ez zituen bost minutu ere egin. 'Zuk eztabaidatzen al duzu hezitzaileekin? Eztabaidarazten al diezu?' galdetu zidan. Hori zen bere kezka.

Zuk zerbait esplikatu behar baduzu, zure pentsamendua antolatu behar duzu, eta hori egitean lan intelektual eta kognitibo bat egiten ari zara. Nik ahalegin hori egiten badut nire buruarekin, zuk zurearekin eta gero biok mintzatzaren bagara, biderkatu egiten den efektua lortzen da.

Eskola batean hori gertatzen ez bada, ez bada eztabaidatzen, hezitzaileak utzikieran erorita daudelako da, ez zaielako axola, ez dutelako eztabaidatzen.

Eztabaidatzeak ezaugarri genetiko bat sorrarazten dizu barruan: jakin-mina, egonezina... badirudi inoiz ez zarela helmugara iristen eta beti ibili egin behar duzula. Gauzak beste modu batera ikustera iritsi behar duzu. Zure balio eta sinesmen propioak zalantzan jar daitezela. Galderaren, zalantza kultura. Hori da egungo filosofiaren oinarrietako bat.

Programa zehatzak egiteko partez, proiektuak edo esperientziak eramanen dituzue aurrera. Adibide bat jarriko al diguzu?

5 urteko haurrekin egindako proiektu bat azalduko dizuet urratsez urrats:

Bat) Beti arazoak planteatzen ditugu egoera, testuinguru edo esperientzia modura, eta haur bakoitzak bere ikuspegia ematen du. Hori normalean helduek egiten dute, baina gurean haurrek ere bai. Adibide honetan, hezitzaileak erronka edo esperientzia berri bat planteatzen die: Erromako zubi bat egin behar dute. Ataleko haur guztiek (26 dira) hezitzailearekin batera eztabaidatzen dute: zer da Erromako zubia, non sortzen da, noiz ikusten da... Haur bakoitza Erromako zubia zer den ulertzen saiatzen da. Gero, eskua altxa eta bakoitzak bere ikuspegia azaltzen du, bakoitzak Erromako zubiari buruz daukiena komentatzen du. Beraz, guztiek



daukate ezagutza. Helduek badakite haurrek badakitela, eta haurrek badakite helduak adi daudela. Beraz, entzutearen pedagogia hor dago.

Bi) Esperientzia hasten da. Hezitzaileak esaten die: 'gauza asko esan dituzue Erromako zubiari buruz eta horrekin guztiarekin Erromako zubi bat egiten saiatzeko eskatzen dizuet'. Bide horretan, hezitzaileak galderak egiten dizkie haurrek ezagutza berria sordezaten. Kasu honetan, haurrei behar diren osagaiak ematen dizkie. 'Zuen us-tez, posible al da gauza hauekin Erromako zubia egitea?' galdetzen die. Galderak inoiz ez dira alferrikakoak izaten, laguntzeko izaten dira, baliiodunak. Helduak haurrei konfiantza eman behar die, lortuko dutenaren lasaitasuna eman behar die. Galderek ezin dituzte haurrak engainatu, traizionatu. Alde-rantziz, ezagutza azpimarratu eta Erromako zubia lortzen lagundu behar die. Galde-erantzunekin teoria guztiak errepatatzen dituzte eta talde guztiaren oroimena lantzen dute.

Hiru) Haurren talde handitik saioa egin behar duen talde txikira pasatzen dira. Haurrek probatu egiten dute. Denbora ematen zaie probatzeko eta berriz probatzeko. Horrela, beraien pentsamenduak esperientziarekin harremanetan jartzen dituzte. Haur guztien pentsamenduak dira baliagarriak. Batek esandakoa probatzen dute, gero besteak esandakoa... Saioak egiten dituzte.

Lau) Azkenik, esperientzia egin, burutu, egiazatu eta falsifikatu ondoren, esperientzia horren puntu garrant-

maddalena
teleschi
sandra
piccinini

E

Eztabaida funtsezkoa da. Zuk zerbait esplikatu behar baduzu, zure pentsamendua antolatu behar duzu, eta hori egitean lan intelektual eta kognitibo bat egiten ari zara. Nik ahalegin hori egiten badut nire buruarekin, zuk zurearekin eta gero biok mintzatzen bagara, biderkatu egiten den efektua lortzen da

tzitsuenak hartzen dituzte eta zer egin duten kontatzen dute. Dokumentazio lana izango litzateke.

Esperientziei helbururik jartzen al diezue?

Gure esperientzien barruan badira helburuak, baina ez dira helburu kurrikular itxiak edo zurrinak, baizik eta ikasketa pedagogikoko helburuak. Haurren 100 hizkuntzen teoriarekin lotuta daudenak dira, eta beraz, argi dago askatasun handia dagoela, baina baita erantzukizun handia ere hezitzailearen aldetik. Izan ere, esperientzia arlo eta hizkera anitzetan eta ikasketa askori begira planteatu behar da.

Parte-hartzea ere funtsezkoa da zuen eskoletan. Nola lortzen da denek parte hartzea?

Malaguzzirentzat parte hartzea zen kudeaketa soziala, partaidetza demokratikoa, erantzukizun partekatua eta arazoetan sakontzea biltzen dituen forma eratzailea eta kulturala. Eta hori dena familien, langileen, administrazioen eta politikoen ideiak batuta.

Gure eskoletan urrun ez dagoen zerbaiten zati izatearen sentimendua dago. Zerbaiten kide izatearen emozioa edo pasioa.

Denek eztabaidatzen dute proiektu pedagogikoari buruz: familiek, hurrek, hezitzaileek, pedagogoek, sukaldariek, garbitzaileek... Eztabaidatu eta akordiotara iristen dira proiektu pedagogikoa aldatzen joan dadin. Izan ere, balioak aldatu egiten dira familiek eta hurrek aldatu ahala, eta hori egokitzen joan behar da. Familiek dokumentazioa irakur dezakete, hezitzaileekin hitz egin, hurrekin hitz egin... Bilerak familiei ondo datorkien orduan egiten dira, hurrek oheratuta daudenean eta afaldu ondoren (iluntzeko 9:00etan).

Gure ustez beharrezkoa da familiarekin egoteko denbora hartzea. Oso baliotsua da arratsaldean familiarekin elkartzea hurrek egindakoaz hitz egiteko eta dokumentazio guztia erakusteko: irudiak, oharrak... Hurrek egindako guztia erakusten zaie eta komentatu egiten da. Familiarekin interpretatzen da.

Hezitzaileek zenbat denbora dute prestatzeko?

Hurrekin egoten diren denboraz aparte, gogoeta egiteko denbora daukate. Oharrak, gogoetak, pentsamenduak... antolatzen dira eta agenda egin. Zer da agenda? Eskolako atal bakoitzaren kanpoaldean dokumentazioa egoten da hurrek egunean zehar egin dutena jartzeko, eta astean zehar halako narrazio txiki bat egiten da. Familiek hori irakurtzeko aukera dute.

Hezitzaileek egiten duten lanari buruz hitz egiteko premia daukate, eta hori egiten dute sukaldariek, garbitzaileekin, pedagogoarekin... Hurrekin egoteaz gain, astean zehar beste bi



ordu eta erdi dituzte gogoeta eta dokumentazioa egiteko eta egindako esperientziara itzultzeko. Normalean hezitzaile bakoitzak astean goiz bat hartzen du horretarako, eta urtean zehar beste ordu batzuk eguneratzeak egiteko. Hezitzaileek beraiek aukeratzen dute noiz, zer eta zertarako egin eskolako gauzetan sakontzeko.

Zein da pedagogoen lana?

Pedagogo bakoitzak haur eskola batzuk ditu bere ardurapean. Astean behin pedagogo guztiak biltzen dira bilera batean, batez ere proiektuan kalitateari buruz eztabaidatzeko edo teoriari buruzko edo sakontze teknikoak egiteko. Baita ere eskola bakoitzaren bizitzari buruzko informazioa elkarri pasatzeko: dauden arazoak, ekimenak...

Beste zenbait unetan sakontze teorikoak egiten ditugu gai bereziei buruz. Pedagogo bakoitzak gai berezi batzuk landu eta sakontzen ditu, materiala bildu, pertsona adituekin egon... Horrek gai espezifikoiei buruzko ikuspegi berriak izateko aukera ematen digu.

Lan hori prestakuntzaren esparruan egiten da, lankideekin eta beste pedagogoen harremanetan egonez. Baina, bereziki, eskolekin harremanetan egonez. Zeren, prestakuntza batez ere ekintza konkretuei buruzko gogoeta eginez lortu behar dela pentsatzen dugu. Teorietan eta azterketetan oinarritzen diren gogoeta pedagogikoak baino nahiago dugu esperientzia praktikoa. Eguneroko behaketaz baliatzen gara teoriak eta interpretazioak ateratzeko. Gero, gure teoria horiek beste filosofo, psikologo eta diziplina anitzeko adituekin konparatzen eta lantzen ditugu.

Zer gertatzen da 6 urtetik aurrera? Jarraipenik ba al dago?

6 urtetik aurrera eskola estatalak daude Italian. Eta hor elkartzeko gure eskolako haurrak, haur eskola estatalakoak, haur eskola erlijiosoetakoak eta eskolatu gabekoak. Derrigorrezko eskolak denak homogeneizatzeko ahaleginak egiten ditu; irakaskuntza bakarria emanez beraien ikasketak bateratzen saiatzen da. Hala ere, ez da gai haur guztiak berdinduz tratatzeko, gero eta desberdinagoak baitira haurrak. Lehen ere desberdinak ziren, baina orain gehiago nabaritzen da. Gure eskolako haurren % 10 inguru beste herrialde batetik etorritako familietakoa da, ohitura eta kultura desberdinekin.

Horregatik, derrigorrezko eskolari



esperientzia berriak egitea interesatzen zaio, beste esperientzia batekin eta haurrek dituzten desberdintasunak kontuan hartuz.

Bide horretan bi esperientzia berri hasi ditugu. Bata, haur eskolen eta oinarriko eskolen arteko jarraikotasun proiektua. Haur eskoletako taileristak derrigorrezko eskola batzuetara joaten dira astean bi egunez, eta astean behin gure pedagogoen eta lantoki arduradunek gaurkotze lan bat egiten dute oinarriko eskolako irakasleekin. Oraindik esperientzia berria da, irailean hasitakoa, baina interesgarria dirudi eskolak nola antolatuta dauden eztabaidatzeko.

Bigarren proiektua irakasleen prestakuntzari buruzko eztabaida da. Esperientziaren eta ikasketaren arteko loturan sakontzen ari gara ikusiz teoria, praktika, haurrek egiten dituzten esperientziak eta horren inguruko kontzeptualizazioa. Horren inguruko dokumentazioa prestatzen ari gara.

Zuek haurren heltze prozesuaren eritimoa errespetatzen duzue. Baina derrigorrezko eskolan, beste haurrekin homogeneizatuko direla jakinda, ez al duzue irakurketa-idazketa lantzeko presiorik sentitzen?

Guk uste dugu derrigorrezko eskolak haurri kode formalak eraikitzen laguntzen diola. Horregatik, derrigorrezko eskolak irakurketa eta idazketa "zuzena" irakasten du. Denok ezagutzen ditugun hizkuntzaren kode ida-

tzia, alfabetoa, zenbakiak... derrigorrezko eskolaren lana dela pentsatzen dugu.

Haur eskolak planteatzen dituen helburuak bestelakoak dira: haurri kodeen ezagutza erraztea, eta ez idazten jakitea, edo hitz bat nola irakurri, edo zenbatzen jakin. Hori ez da haur eskolaren helburua. Baizik eta haurrek horretaz egiten dituzten galderak entzutea. Zeren haurrak oso azkar hasten dira kodeei buruzko galderak egiten. Oso zaila da haurrek jakin-minik ez agertzea aukera horiei buruz.

Orduan, kontua da zein estrategia eta material erabiltzen diren kode horiek ezagutzeko. Adibidez, harritsuak kontatuz edo antolatuz, posta txokoan mezuak aurkituz, ordenagailua erabiltziz... Haur bakoitzak topatu behar du bere hurbilketa modua ezagutzara iristeko. Horregatik, ezagutza ez da nozioen batuketa hutsa, baizik eta topaketa berezi bat halako arazo batekin, lantzen eta bilakatzen den arazo batekin eta ezagutza ematen duena.

Hori da kontua. Errealitatean, gure haur eskoletatik ateratzen diren haur batzuek badakite idazten, eta beste batzuek ez. Baina denek planteatzen dute arazo hori eta jakin-mina daukate, eta horrek lagunduko die derrigorrezko eskolara idazten eta irakurtzen ikasteko gogoz joaten. Hau da, motibatuta daude horiekin topatzeko, eta hori da guk daukagun helburua.

Planoa eskuan eta ibili munduan

Orienteering Arteagan zehar



Bidez bide noa
harri koxkorak botaz
itzulbidea gogoa
(Juan Kruz Igerabide)

Harri koxkorak botaz ez, baina datuak bilduz eta begiak ederki zabalduz ibili ziren Gaitegiz-Arteagako haurrak iaz egin zuten ibilbide batean. Orientatzeko sena landu nahian, irakasleek ibilbide bat prestatu zuten Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako gazte txoentzat. Eme ibiltzen ez ezik, inguruz gozatzen ere ikasi zuten. Eta aurten ere berriaz aterako dira; oraingoan bizikleta hartuta. Iazkoa, orrialde hautan kontatuko digutena, esperientzia ona izan zen seinale.

Jos Luis BARDN
Gaitegiz-Arteagako Montorre ikastetxeke
irakaslea

Juanma ITURRALDE
Gernikako Berritzeguneko aholkularia

Historia pixka bat

Orientazioaren inguruko kirolek Eskandinavian dute jatorria. Hango inguruak elurrez estalita egoten dira urtearen zati handi batean, eta ondorioz, orientazioa zaildu egiten da eta erraza dagaltzea. Horregatik, gaztetatik orientazio ezaguerak edukitzea oso baliagarria da eguneroko bizitzarako.

Aukera hori luzatu nahi genien gure ikasleei, eta aldi berean, Ingurumen

Heziketa landu. Jakina, Ingurumen Heziketaren barruan arlo ugari landu daitezke, eta guk orienteering-arena aukeratu genuen. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako ikasleekin esperientzia interesgarria landu dugu.

Gaitegiz-Arteagako gure eskola txikia da eta adin ezberdinetako ikasleak daude gela berean. Hori ez da oztopo horrelako esperientziak aurrera eramateko; aitzitik, aberasgarria da.

Orienteering-a gela barruan zein kanpoan landu dugu eta aitzakia polita da diziplinarteko praktika didaktiko bat abian jartzeko. Izan ere, joko edo ekintza honek diziplinarteko lana eskatzen du, hainbat arlo ukitzen baitira: Euskara eta Gaztelania, Matematika, Ingurumenearen Ezaguera, Plastika...



Irten aurretik

Hasteko, ikasleei inguruko herrietako planoak erakutsi genizkien. Planoen erabilgarritasunaz eta erabiltzeko moduez eztabaidatu genuen. Ondoren, orienteering-aren jatorriaz eta ezaugarriez aritu ginen, eta gure herrian ibilbide bat egiteko aukera aztertu genuen.

Gernikatik Lekeitiorako errepideak bitan banatzen du gure herria, eta berau gurutzatzea arazo bihurtzen da. Horregatik, errepidearen alde batean burutu genuen gure ibilbidea, arazoak saihestearren.

Ibilbidearen hasiera eta bukaera eskolan kokatu genituen. Beraz, ibilbidea zirkularra zen. Planoan interes historikoa, monumentala, naturala eta afektiboa duten guneak seinalatu genituen.

Ibilbidea egiten hasi aurretik, hainbat kontzeptu landu genituen gelan:

1- Eskala

1- Hainbat eskala eredu ezagutu genituen, 1/1 eskalarekin hasiz. Ariketa bat honako hau izan zen: lehendabizi margo kaxa bat orri batean marraztu neurri errealean, eta gero, orri txikiago batera pasa proportzioak mantenduz. Eskalaz aldatzeko beharra ikusi zuten.

2- Gelako objektuak hainbat eskalatan marraztu zituzten taldeka.

3- Taldeen artean trukatu zituzten egindako eskalak eta, eskala ikusirik, objektuen neurri errealeak kalkulatu zituzten eta benetakoekin konparatu.

2- Planoa

4- Inguruko eraikinei begiratu genien goiko pisuko leihoetik, eta hegazti batek goitik nola ikusiko litzuzkeen irudikatu zuten.

5- Gelaren plano a egin zuten.

6- Talde txikitik banatuta, gelan zehar ibilbide batzuk prestatu zituzten. Lanak trukatu eta ibilbide horiek egin zituzten.

7- Aurrekoaren kontrako ariketa bat egin genuen: batek ibilbide bat egiten zuten, eta besteek plano batean marraztu behar zuten hark egindako ibilbidea.

Ingurumen Heziketa

Gizakia betidanik egon da ingurunearekin harremanetan, eta gutxiago edo gehiago, aldatu egin du. Ingurumen arazoak ez dira berriak, lehen ere egon izan dira, baina orain askoz ere azkarrago gertatzen dira aldaketak, modu masiboan, eta eraginak mundu osoan jasaten dira.

Horri lorturik, eskolan garrantzia hartu du ingurumen heziketak. Hezkuntzako berrikuntzetako bat dela esan liteke. Ingurumen Heziketaren abiapuntua ingurune batean murgilduta dagoen haurra da. Haurra ingurunearekin elkarreaginean dago, bai alderdi kognitibotik begiratuta, bai prozedurazkotik eta bai afektibotik begiratuta.

Edonola ere, ingurumen heziketa ez da gauza berria, lehendik ere bazeuden horrelako planteamenduak, nahiz eta beste modu batera deitu. Esate baterako, inguruneari irekitako mugimendu pedagogikoetan betidanik eman zaio garrantzia arlo horri: Irakaskuntza Libreko Institutuzioan, Eskola Berriaren mugimenduetan, Freineten eskola modernoan eta haren mugimendu kooperatiboetan, Paulo Freireren pedagogian...

1960ko hamarkadatik aurrera humanitatearen garapen ereduak noiz arte iraungo ote duen galdetzen hasi ziren gizarteko hainbat sektore. Pentsamendu berri horretatik jaio zen Ingurumen Heziketa deituriko mugimendua. Hala ere, hasieran ez zizaion garrantzi handirik eman, harik eta Unescok Ingurumen Heziketaren oinarriko printzipioak bere egin zituen arte eta berau sartzeko plan bat egin zuen arte. Geroztik hainbat mugari izan dira Ingurumen Heziketaren garapenean: Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra (Stocholm, 1972), Ingurumen Heziketaren Nazioarteko Mintegia (Belgrad, 1975) eta Tbilisiko Konferentzia (1977). Azken honetan Ingurumen Heziketa ezartzen jarraitzeko jarraibideak eta estrategiak ezarri ziren. Konferentzia honetan zera azpimarratu zen: Ingurumen Heziketa gizarte osoari zuzendu behar zaiola, eta zentzu horretan, eskola funtsezko gunea dela.



Orienteering-a gela barruan zein kanpoan landu dugu eta aitzakia polita izan da diziplinarteko praktika didaktiko bat abian jartzeko.

8- Arteagako planoan ikasleentzat erreferentzia diren puntuak markatu genituen: norberaren etxea, plaza, eskola...

9- Distantziak kalkulatu genituen Arteagako planoan eskala kontuan harturik. Planoan kalkulaturako distantzia eta errealtatekoa bat ote zetozen egiaztatu genuen.

3- Mapa

10- Interneten sartu ginen, www.bizkaia.net helbidean, eta ondoren: kartografia eta estatistika, Bizkaiko kartografia, 038, 03861/03862.

Azken bi zenbaki horiek Arteagari dagozkionak dira eta gure herria bi modutara ikusteko aukera ematen digute: mapa batean eta ortofoto batean (airetik egindako argazkia). Bata zein beste 1/5.000 eskalan daude. Mapa topografikoa landu nahi bada, saguarekin landu nahi den zatiaren gainean klikatzen da.

11- Euskal Autonomia Erkidegoko kartografiari buruzko CD-ROMa erabili genuen.

12- Mapa tematiko bat (geologikoa, klimatikoa, landaretzakoa...) komen-

tatu genuen gainetik.

13- Busturialdeko eta Bizkaiko mapak landu genituen teledetekzioa lantzeko, hau da, istripu geografikoak urrutitik behatzeko.

14- Herriko mugak markatu genituen Gautegiz-Arteagako mapan.

4- Iparrorratza

15- Iparrorratza puntu kardinalak seinalatze erabili genuen.

16- Honako orientazio joko hauek egin genituen:

1. Jokoaren gidariak lau puntu kardinalak seinalatu ditu, eta gainerakoak gelan zirkuluan mugitzen dira. Gidariak "geldi" esaten duenean, bakoitzak zein aldetara begira dagoen esan behar du.

2. Jokoaren gidariak puntu kardinalak seinalatu ditu eta parte-hartzaileek seinalaturako puntuari begiratzen diote. Asmatzen ez dutenak kanporatu egiten dira. Jolasak aurrera egin ahala, abiadura handitu egiten da.

3. Objektu bat jartzen da taldearen erdian. Kartulina batean puntu kardinalak marrazten dira. Parte-hartzaileek zirkuluan mugituz jarraitzen dute, eta erdiko objektua erreferentziatzen harturik, zein egoeratan dauden esan behar dute.

17- Azkenik, interpretazioa landu genuen, hau da, paisaia bat zergatik den modu batekoa eta ez besteakoa. Horrela fenosistema eta kriptosistema kontzeptuak ezagutu zituzten. Fenosistema hautematen dena da, hots, biotopoak (bizitzarik gabeko euskariak) eta biozenosiak (paisaian dagoen landare-tza eta animaliak). Eta kriptosistema azpian dauden arazoak eta prozesuak dira, batez ere fisikoak, kimikoak, biologikoak, geologikoak eta abar. Ez dira ikusten, baina ikusten den paisaiari azalpena eta koherentzia ematen diote.

Gure behaketa beti ez da berdina, hainbat faktorek aldatu egiten baitute. Adibidez:

- Behatzailearen kokalekua: ez da gauza bera bailara baten barruan egotea eta 500, 1.000, 2.000, 3.000 m-ko mendi baten gailurrean egotea, hegazkin batean, lautada baten erdian, itsasertzean, itsaslabar baten gainean...

- Uneko baldintza meteorologikoek ere eragina dute: euria, lainoa, hodeiak...

- Urte garaiaren arabera, eguzkia gorago edo beherago egongo da.

- Ordua: egunsentia, eguerdia edo ilunabarra izan, desberdina da.

Edozein modutan, beti egin liteke halako sailkapen orokor bat haute-mandako paisaia sailkatzeko. Hiru maila bereiz daitezke:

1- Makroa: alderdi orokorrak eta urrunekoak. Paisaia eta geoforma handien interpretazioa. Teledetekzioarekin (prismatikoak, teleskopioak...) xehetasunak ikus litezke. Esate baterako, Gorbeia gailurretik leku zabalak ikus daitezke.

2- Mesoa: lautadak.

3- Mikroa: gertukoak, paisaiaren xehetasun asko ikusten direnean: arroka baten kolorea eta ehundura, faunaren eta landaretzaren xehetasunak, itsaslabar baten oinarria...

18- Maketa: bisitatu behar genuen lekuaren maketa egin genuen.

Irteera prestatzen

Ikasleekin ibilbidea egitera atera aurretik, irakasleak egitea komeni da, interesgarriak diren lekuak atzemateko eta denbora kalkulatzeko.

Irakasleak ibilbideko seinaleak eta pistak jartzeko xaflak prestatu behar ditu. Guk 21x14 cm-ko eta 4 mm-ko lodierako xaflak egin genituen. Atzeko aldean honako hau idatzi genuen: "Kartel hau eskolako da. Geuk kenduko dugu. Eskerrik asko". Aurreko aldean ikasleek kopiatu beharreko esaldia edo esaera zaharra idazten genuen.

Ibilbidean zehar aukeratu genituen tokietan pistak jarri genituen. Ikasleek pista horiek bilatu behar zituzten pla-



noaren laguntzaz, eta pista horietako bakoitzean zegoen esaldia edo esaera zaharra idatzi behar zuten.

Irteera

Ikasleak bi taldetan banatu genituen eta talde bakoitzean adin desberdinetako haurrak zeuden. Talde bakoitzarekin irakasle bat joan zen. Irteera ordua desberdina izan zen. Pista batetik bestera pasatzen zuten denbora apuntatu egin genuen, eta puntu bakoitzean bitaldeak bilduta, denok elkarrekin ekintza batzuk egiten genituen.

Puntu batean pultsazioak neurtu genituen; hasieran atsedendian zeudenean eta gero korrika saiotoxo bat egin ostean. Ateratako datuekin grafiko bat egin zuten gelan hainbat gauza interpretatzeko: pultsazio maximoak, errekupeazio denbora eta abar.

Eguraldiaren iragarpena ere egin zuten, ibilbidean zehar fitxa batean tenperatura, hezetasuna, hodeiak, sentsazio termikoa eta antzeko datuak bilduz.

Materialari dagokionez, ikasle bakoitzak honako tresna hauek eraman zituen: karpeta (barruan plano, pisten azalpena, Busturialdeko eta Bizkaiko mapa bana eta pistetako mezuak idazteko orri bat), iparrorratza, prismatikoa, metroa, arkatza eta ezabagoma. Irakasleok kamera digitala, termometroa, altimetroa eta naturako gida bat eraman genituen.

Ibilbidea

Ibilbidean zehar bederatzita pista zeuden. Artikulu honetan lau baino ez ditugu jarriko, zer motatako lana burutu genuen jakiteko nahikoak direlakoan.

Ikastetxetik irten eta hegoalderantz 150 m ibili ondoren elizaraino iritsi ginen. Han, hegoaldeko atearen aurrean, lehenengo pista aurkitu zuten.

1. pista:

- Elizaren zenbait ezaugarri aipatu ziren.
- Elizaren mendebaldean dagoen eraikinaren historia ezagutu genuen.
- Elizako atletik gertu, hegoaldera

dauden zuhaitzei behatu genien: zer zuhaitz mota ziren, ezaugarriak, adina, sinbologia...

- Zin egiteko mahaiaren inguruan jarri eta haren funtzioaz hitz egin genuen.

- Argazkiak atera genituen.
- Teledetekzioa egin genuen: Busturialdeko eta Bizkaiko mapak erabiliz, zenbait leku ezagutu behar zituzten: Ereñozar, Oiz, Gorbeia eta Sollube. Mendi bakoitzaren norabide zuzena (I/H/E/M) kalkulatu zuten gradutan.

Elizaren iparraldeko aurpegira itzuli eta ekialderantz abiatzen zen bidea hartu genuen. Ipar-ekialdera maldan behera jaitsi eta Oleta baserrira iritsi ginen. Zubitxo baten gainean zegoen bigarren pista.

2. pista:

- Errotaren argazkiak atera genituen.

- Ba al dakigu nola funtzionatzen duen errota batek? Beheko errotarria ikustera hurbildu ginen, urak mugitzen duena.

- Energia hidraulikoari buruzko azaleko azalpen bat eman zitzaien ikasleei, urak bitarteko hidrauliko gisara duen funtzioaz jabetzeko.

Gero, hegoalderantz jo genuen. Oleta ibaiaren ekialdeko bidezidor

batetik jarraitu genuen asfaltatutako bide batera iritsi arte. Zutoin elektriko batean zegoen hirugarren pista.

3. pista:

- Energia elektrikoaz mintzatu ginen.

- Paisaiaren kalitatea aztertu genuen. Ikusmen eta entzumen pertzepzioak landu genituen, eta baita ekosistema motak, eragin ekologikoak eta elementu artifizialak ere.

Hirugarren leku horretatik ekialdera jarraitu genuen Jaunsolo baserrira iritsi arte. Haren ekialdetik metro batzuk ibili ostean, pago baten ondoan gelditu ginen, laugarren pista zegoen lekuan.

4. pista:

- Pagoaren azterketa txiki bat egin genuen: enborra, hostoak, fruituak, forma orokorra...

- Ur andela bat dago handik gertu, eta ikerketa txiki bat egin genuen: lehen iturririk ba al zegoen leku horretan? Nondik dator ur hori? Zein altueratan dago? Norentzat da ura?

Ekintza batzuk ibilbidean bertan burutu genituen, baina beste batzuk gelara itzultakoan. Horrez gain, beste batzuk ibilbidean bertan sortzen dira, eta hortik abiatuta, beste ekintza batzuk egiten genituen ondoren.



Esperientzia positiboki baloratu dugu parte hartutako guztiok. Orain askoz ere gehiago dakigu: bai tresnei buruz, bai ikuspegi kulturalari buruz, eta sentsibilizatuago gaude.

Irteeraren ondoren

Hasteko, ibilbidean zehar atera genituen argazkiak ikusi genituen. Horrek, ibilbidea eta egindako orientee-ring-a gogoratzeko balio digu. Memento hori oso egokia da ibilbidean zehar sortutako ekintzak gelan aurrera eramateko.

Ibilbidean zehar taldeek hitz berriak edo ezezagunak apuntatu zituzten: zundaketa lekua, marmola, fosila... Interesatzen zitzaizkigun hitzen esanahia bilatu genuen taldeka jarrita.

Aldi berean, ibilbidean zehar egindako ahaleginari buruzko grafikoak

egin genituen, bihotzaren pultsazio aldatetarikusteko.

Egindako ibilbidearen luzera ere neurtu genuen.

Ikasle bakoitzak egindako aktibitatearen laburpen txiki bat egin zuen irudi batekin eta norberaren bizipenen ebaluazio txiki batekin.

Azkenik, bi edo hiru kideko talde txikitik banatuta, ibilbide osoa pista laburtu genuen Power Point programarekin.

Ebaluazioa

Aktibitate hau progresiboa da, hau da, aurreratu ahal izateko aurreko edukiak barneratuta eduki behar dira. Bateria lanean egindako ibilbidea errepasatzen dugu eta horrek ebaluazioa egiteko eta aurrera begirakoa birbidertzeko balio du.

Bukaeran eskolako beste ikasleei aurkezten zaie Power Point-en bitartez; pista bakoitza irudi batekin eta azalpen txiki batekin. Modu horretara, prozesu osoa errepasatzen da.

Esperientzia honetan parte hartu genuen guztiok positiboki baloratu genuen. Bukaeran askoz ere gehiago genekien: bai tresnei buruz eta bai ikuspegi kulturalari buruz, eta sentsibilizatuago geunden. Gainera, ibilbideaz gozatuz lortu genuen hori guztia.

Aurten Urdaibairen eskuinaldean egingo dugu ibilbide bat bizikletaz.



Helburuak

Proiektu honekin lortu ditugun hainbat helburu eta eduki irakasleok eta ikasleek elkarrekin definitu ditugu, ekintza garatu ahala. Hasteko, kartografiaren munduan murgildurik, eskalax, magnitudeen aldatetarik, orientatzeko moduak, orientatzeko tresnak eta abar erabiltzen ikasi dute. Zenbait unetan egoerei edo arazoei aurre egin behar izan diete, eta modu naturalean hurbildu gara Lurraren Zientziara, Matematikara, Historiara, Geografiara eta abar.

Irakasleok beste zenbait helburu ere lortu nahi izan ditugu: mapa motak eta sestra kurbak ezagutzea, herri ondasuna baloratzea...

Esperientzia hau Ingurumen Heziketari lotuta dagoenez, beste zenbait helburu ere ukitu ditugu:


- Ikasleak beraiek izan dira protagonista beren ikasketa, globalizazio eta diziplinarteko prozesuan.

- Inguruneran hurbildu gara, gertutasun afektiboa eta konpromiso etikoak garatuz.

- Ingurunean dauden arazoez jabetu dira haurrak, eta garapen jasangarria lortzeko erantzun parte-hartzailea, arduratsua eta solidarioa eman litekeela ikusi dute. •



Kataluniako Hezkuntzarako Gizarte foroa



Otsailaren 25, 26 eta 27an Bartzelonako Unibertsitatean Kataluniako Hezkuntzarako Gizarte Foroa burutu zen. Bertan, hezkuntzari buruzko hainbat hitzaldi, mahainguru, eztabaidagune, tailer eta aurkezpen plazaratu ziren. Guztira 1.400 kidek hartu zuten parte.



Frei Betto, Brasilgo idazlea eta hezkuntzan aditua: *"Hezkuntzaren helburua ez da gaitasunak dituzten profesionalak sortzea, gizon eta emakume zoriontsuak egitea baizik."*



Maria Nalva Rodrigues de Araujo, Brasilgo Bahia Unibertsitateko Soziologia irakaslea eta MSTko hezkuntza ordezkarria: *"Kultura ezberdinen errespetutik etorri behar du mundu berriak."*



Claudia Korol, Argentinako Madres de la Plaza de Mayo Unibertsitateko irakaslea: *"Gurea, herri unibertsitatea da, eta administratziotik aparte egoteak zentzu herritarra mantentzen laguntzen digu."*



Brasil, Venezuela eta Kuba: Hezkuntza eraldatzeko ekarpenak zertan mahainguruan: *"Neoliberalismoari aurrean jarri behar dizkiogu elkartasuna eta denontzako hezkuntza."*



Xabier Bonal, Rosa Cañadel, Mercé Chacón, Josep Menéndez eta Joan Jordi.

“Hezkuntzarako eskubidea: eskola publikoa/eskola kontzertatua” zertan mahaingurua.

Zerbitzu publikoaren inguruan zentratu zen eztabaida nagusia.

Roberta Roberti italiarrak Italiako eskola publikoaren egoera aurkeztu zuen. Eskola publikoak ikasleen % 95 jasotzen du Italian. Gaur egun, pribatizazio prozesua dela-eta, hango eskakizunak irakurri zituen.

Gai horri buruz, azken agurrean Kataluniako hezkuntza kontseilariak zera adierazi zuen: Kataluniako Go-

bernuaren asmoa diru publikoa jasotzen duten ikastetxe guztiekin sare barregarra egitea dela.

Atzean **Jaume Carbonell** “Cuadernos de Pedagogía” aldizkari zuzendaria.



Hasiera bezala, amaiera ere **Creart** antzerki taldeak eman zion “Amboscapalcap” obra aurkeztuz.

Creart taldea behar bereziak dituzten pertsonak osatzen dute.



Azken agiriaren laburpena: Hezkuntza eskubide unibertsala da, eta ondasun publikoa. Herritar guztiei dagokien eskubidea izanik administrazioek kalitate eta berdintasun baldintzetan bete beharko lukete. Gure gizartean, hezkuntza behar bat izateaz gain ezinbestekoa da gizarte kohesionatua eta justua lortzeko bidean. Ildo horri helduz, hauek dira oinarritzko aldarrikapenak:

1. Gizarte osoa inplikaturako duen hezkuntza askatzailea nahi dugu.
2. Kataluniako hezkuntzak gure gizartean ematen ari diren aldaketa sakonei erantzun behar diela, eta, gainera, hezkuntza pribatizatze daraman ildoak kontrolatu behar da.
3. Hezkuntza eredu aldatu beharra dago, eta horretan, irakaskuntza publikoak ardatz bertebratzailea izan behar du. Horretarako gutzirako, egungo % 4,5aren ordez, BPGaren % 6 zuzendu beharra dago hezkuntzara.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagorekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

apirila

Eskolaldirako



Ikusmin handia sortu zuen prentsaurrekoak. Hona hemen eragileek zabalduetako testua.

Kronologia

Iaz "Euskal Currikuluma: ibilbide kulturala" liburua aurkeztu ondoren, aurten Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Sortzen-Ikasbatuazek eta Udalbiltzak ituna izenpetu dute currikuluma garatzeko eta eskola komunitatearen eta herritarren parte-hartzea bermatuko duen prozesua abiatzeko.

Martxoaren 18an, Bilbon, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak Euskal Herri osoko 22 eragilerekin batera aurrera begira duten erronka aurkeztu zuen:

1. Maiatzean proposamen tekniko aurkeztuko da.
2. 2005-2006 ikasturtean, hainbat zentrotan Euskal Curriculum oinarriko eta komunari dagozkion edukiak beren hezkuntza proiektuetan sartuko dituzte.
3. Egindakoa ebaluatu eta egin beharreko egokitzapenak egin ondoren, 2006-2007 ikasturtean ikastetxetan ezarriko litzateke.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Euskal Herri osoko hezkuntza arloko 22 eragilek "Eskolaldirako Euskal Curriculumaren" proposamena aurkeztu dute. Urrats berri horren xehetasunak azaldu zituzten prentsaurrean eta hona hemen eragileek zabalduetako testua:

"Eskolaldirako Euskal Curriculumaren" proposamena Euskal Herriko lurraldeetan ordezkapen zabala duten eragileei bideratua dago, unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako sektoreei. Ekimen hitzartua da eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren diru laguntza du.

Euskal Curriculumaren proposamenak elkarren osagarri diren bi helburu ditu:

- Batetik, proposamena izenpetzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartu dute Euskal Curriculum oinarriko eta komunari dagozkion edukiak beren hezkuntza proiektuetan sartzeko, bai eta derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan haiek ebaluatzeko ere.

- Beste alde batetik, hezkuntza proiektuaren planteamendua hobe-

tzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen (gizarte europarra eta unibertsala) beharretara egokitzeko eta ikasleek emaitza onak izatea sustatzeko.

Proposamena gizarte erakundeen esku jarriko da, batez ere hezkuntzako erakundeen esku, proposamena eza-gutu, alderatu eta balioetsi ahal izateko euskal hezkuntza sistema osora zabaldu aurretik.

"Euskal Curriculumaren" proiektuak elkarren osagarri diren bi behar eta helburu nagusiri erantzuten die:

- Batetik, proiektuak euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko beharri erantzun behar dio eta hortaz, euskal kultura espezifikokoaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamendua du;

- eta bestetik, euskaldun gisa bizi ahal izateko beharrezkoak diren kompetentziak izateari Europan integratutako gizartean eta globalizazioaren garraian.

Baina, erreferentzia komunak beharrezko gain, garrantzi bera du euskal curriculumean eleaniztasun eta kultu-

Euskal Curriculumuma

rartekotasun planteamenduak sartzea, are gehiago euskal gizartea eleanitza eta kulturantza izanik. Bi helburu horiek, batasuna eta aniztasuna, elkarren osagarri dira.

Euskal Curriculumaren proposamenaren helburua, batetik, XXI. mendean euskal herritar unibertsal gisara bizi ahal izateko ezinbesteko eta oinarritzko gaitasun komunak ziurtatzea da. Gure ikuspegitik, proposamenak irekia izan behar du, curriculum dibertsifikazioak tokia izan dezan eta gizabanakoen desberdintasunak eta inguru bakoitzaren kultur elementuak kontuan hartzeko.

Proiektuaren faseak

Gaur egun lantzen ari garena, "Eskolaldirako Euskal Curriculumaren" definizio eta konkretzioa da. Hona hemen erantzun beharreko galdera:

Euskal kultura espezifikoa eta unibertsalari dagokienez, zein dira Euskal Herrian bizi diren ikasleek derrigorrezko eskolatzeko aldia bukatuta koan partekatu beharreko curriculum edo oinarritzko gaitasun komunak, hau da, ezagutu beharreko gertaerak eta kontzeptuak, garatu beharreko prozedurak eta trebetasunak, eta barneratu beharreko jarrerak eta balioak?

Luze gabe (maiatza aldera seguru aski) proposamenaren aurkezpena egingo da, ondoren haren balorazioa egin eta indarrean jartzeko euskal hezkuntza sistemaren sektore eta eragile ezberdinen konpromisoa definitu.

Geroari dagokio, Euskal Curriculum zabaltzea, ebaluatu eta berritzeko lanak egitea.

Egitasmo honetan parte hartzen dutenak Hezkuntza eremuan lan egiten duten Euskal Herri osoko eragileak dira, eta zabalik dago eragile berrietara.

Laburbilduz:

1) Euskal Curriculumaren proposamena gaitasunen arabera dago formulatuta, eta derrigorrezko eskolatzeko aldirako, Lanbide Heziketarako eta unibertsitateko goi ikasketetarako Europako herrialde gehienek curriculumen ildo beretik doa.

2) Garrantzi handia eman zaio "hezkuntza gaitasun orokorrak" barneratzeari; izan ere, barneratzea hezkuntzaren helburuekin eta pertsona bat eremu guztietan (gizabanakoa, soziala eta naturarekikoa) garatzearekin estuki lotuta dago, eta transferitzeko, funtzio ugari izateko eta asko irauteko aukera ematen du.

3) Curriculumean aipatutako hezkuntzaren helburuen eta hezkuntzako gaitasun orokorren gaineko ikuspegi aldaketak hezkuntzaren jardunean gauzatzeko baldintza batzuk behar dira. Baldintza horien artean garrantzitsuenak hauek dira: irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza egitea eta curriculumaren planteamenduari koherentea den material kurrikularra lantzea.



22 hezkuntza eragilearen babesa jaso du oraingoz

Euskal Herri osoko 22 hezkuntza eragile hauek eman diote babesa ekimenari: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herri osoko Ikastolen Elkarteak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Sortzen-Ikasbatuaz, Sortzen Gurasoak, Kristau eskola, Biga Bai, Eskola Gristinoak, Euskal Haziak; Eusko Ikastolen Batza, Ikastetxe libreen Elkarteak, Elizbarrutiko ikastetxeak, Bilboko Elizbarrutiko ikastetxeetako Guraso Elkarteak, Arabako Ikastetxe ez estataletako Guraso Elkarteak, Bizkaiako Ikasleen Gurasoen Elkarte Katolikoa, Gipuzkoako Guraso Elkartearen Federazio Librea, Ikasge Gurasoen Federazioa, eta Euskadiko Irakasleentzako Libreko Ikasleen Guraso Elkartearen Batasuna.



Alderdi politikoaren hezkuntza proposamenak



Eli Zubiaga (Batasuna): "Euskaraz ikasteko eskubidea bermatu behar da Euskal Herri osoan, eta horretarako, ikastetxeek euskaldunak izan behar dute"

Xabier Sarasua (Aralar): "Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko etena kendu behar da. Lehen Hezkuntzan metodologia aurrerakoia erabiltzen da, eta hori da DBHra pasa behar dena"

Martin Aranburu (EA): "Hezkuntza sistema arautzeko lege bat behar da. Horretarako, gutxiengo-gehiengoak ez du balio, denen arteko adostasuna behar da"

Mikel Agirregabiria (EAJ): "Sare publikoa berrantolatu behar da. Osakidetzaren eredia baliagarria izan daiteke hezkuntzarako"

Sarean Elkarteak alderdi politikoak bildu zituen mahai ingurua antolatu zuen martxoaren 9an Eibarren. EAEko hauteskundeak direla-eta, alderdi bakoitzak zein hezkuntza proiektu duen eta hezkuntzarekiko zein ikuspegi duen azaltzea izan zen helburua.

PSE-EE eta EBko ordezkariak parte hartuko zutela hitz eman arren, ez ziren bertan izan. Horrenbestez, lau mahai-kide izan ziren: EAKo Martin Aranburu, Aralarreko Xabier Sarasua, Batasunako Eli Zubiaga eta EAJko Mikel Agirregabiria.

Alderdi bakoitzak bere ikuspegia eduki arren, bildutako denek azpimarratu zuten euskal curriculumak garatzeak duen garrantzia. Orain arte egindako lana aprobetxatuz hori ikastetxetan zabaldu behar dela ikusten dute.

Batasunako Eli Zubiagak hartu zuen hitza lehendabizi, eta edozein planteamendu egiteko ardatza edo markoa euskal hezkuntza sistema dela esan zuen. Horri loturik, euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan bermatu behar dela gogorarazi zuen. Hizkuntza ereduen sistema errotik birplanteatu beharra azpimarratu zuen.

Idea horrekin ados agertu zen Aralarreko Xabier Sarasua. Hizkuntza ere-

duak aldatzeaz gain, hizkuntzaren ardua ikasgai guztietara hedatu behar dela esan zuen. EHBEn aldarrikapenekin bat egiten dute: eskola herritarra, euskalduna, euskal curriculumean oinarritua, euskal unibertsitatea eta Lanbide Heziketaren euskalduna. Horrekin batera, balioetan oinarrituta hezkuntzari ematen diote garrantzia.

Martin Aranburuk 0-3 etapan dagoen eredia ontzat hartzen dutela esan zuen. Helburua eskaintza handitzea da. Ez da doakotasunik planteatzen, herri honek ezin duelako kostu hori bere gain hartu. Kuotak jaistea da xedetako bat, baina ez doakoa izatea.

Mikel Agirregabiriak ere diru kontuak aipagai izan zituen. Finantziazio aldetik, EAJren helburua bi legegintzalditan hezkuntzara bideratzen den dirua BPGren % 7-9,5era igotzea da. Horretarako, dirua bide askotatik jarri behar da, ez administrazio publikotik soilik. Besteak beste, aportazio sozialak, pribatuak eta abar planteatzen dituzte. Sare publikoaren arazo handiena antolaketak dela azpimarratu zuen. Hori konpontzeko Osakidetzaren antzeko antolaketak bat behar da alderdi jeltzalearen iritziz. Kudeaketa pertsonala eta ekonomikoaz arduratuko litzateke.

Kristau Eskolak hezkuntzan duen konpromisoa berretsi eta helburu estrategikoak aurkeztu ditu

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe erlijiosoak biltzen dituen erakunde berria aurkeztu da berriki: **Kristau Eskola**. Erakunde horren barruan kristau proiektua duten 150 ikastetxe, 83.767 ikasle, 7.000 langile eta hezitzaile, 75 familia eta hezkuntzan diharduten zortzi erakunde daude. Ez dira sortu berriak, urteak daramatzate lanean eta ongi errotuta daude euskal gizartean. Baina erakundeak bere irudia eguneratu du, eta hori gizarteari aurkezteko ekitaldia egin zuen Gasteizen martxoaren 16an. Bide batez, ikastetxe horiek gizartearekiko duten konpromisoa azpimarratzeko baliatu zuten ekitaldia.

Isabel Ardanza Kristau Eskolako lehendakariak adierazi zuenez, beraien hezkuntza eskaintza eta proiektua gizarteratu nahi dituzte. Ebanjelioan oinarritutako beraien hezkuntza proiektuaren bereizgarriak azpimarratu zituzten, elementu bateratzaile izateko asmoz. Egungo munduan gizakiaren dimentsio etikoa, dimentsio naturala eta hainbat balio kolokan jar daitezkeela somatzen dute, eta horren aurrean kristau balioak berpizteko saiakera egin nahi dute; besteak beste, sen ona, egia, besteekiko errespetua eta denon ongia bilatu nahia. Isabel Ardanzak azpimarratu zuenez, "gure proiektuak, orain inoiz baino gehiago, gure haur eta gazteei kristau moralak eta gizakiaren benetako balioak helarazi behar dizkie, eguneraturik, ilusioz eta konplexurik gabe".

Kristau Eskolaren atzean hezkuntza ebanjelizatzaile bat dago eta euskal hezkuntza sistemaren barruan etorkizuneko erreferentzia izango dela uste dute haren bultzatzaileek.

Zentzu horretan, Aitor Bilbao Kristau Eskolako zuzendari orokorrak erakundearen bost helburu estrategikoak aipatu zituen: ikastetxeetako hezkun-




Gasteizen egin zen Euskal Kristau Eskolaren aurkezpen ekitaldia.

tza kalitatea sustatzea, helburu ebanjelizatzailea indartzea, kudeaketaren kalitatean aurrera egitea, teknologien eta komunikazioaren teknologien erabilera normalizatzea eta finantziarioa.

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak eskerrak eman zizkien ikastetxe erlijiosoei egiten duten lanagatik eta eskaintzen duten zerbitzuagatik.

Ondoren, Lovainako Unibertsitateko Ignace Verback doktoreak hitzaldi bat eskaini zuen: "Kalitatezko hezkuntzaren erronkak XXI. mendeko Europan". Europako herrialdeen arteko batasuna lortzeko ekonomiak baino garrantzi handiago du ondasun historikoen, oroimenen eta oinarri espiritualen, bere ustez. "Kide sentitzeko errespetuak sentitu behar dugu, eta hori da Europaren akatsa: ez da joan herritarren arimara, sentimenduetara, kulturara".

Egoera horretan, erlijioak eta hezkuntza erlijiosoak ekarpen garrantzitsua egin dezaketela esan zuen, eta eskola katolikoaren hezkuntza proiektuaren oinarrian hiru ezaugarri nagusi daudela:



Ignace Verback Lovainako Unibertsitateko doktorea hitzaldia ematen.


- Besteengana irekitzea: etorkinak, behar bereziak dituztenak...

- Ekologia zaintzea, justizia soziala eskatzea, bazterketen aurka agertzea, eta kalitate moralak eta errespetua bultzatzea.

- Elkarriketa eta berradiskidetzea.

Hezkuntzaren alorrean gizakiok humanizatzeari eman behar zaio garrantzia Verback doktorearen iritziz.

Argitalpenak



Bidaia munduaren amaierara Henning Mankell EREIN

Joelek 15 urte bete ditu. Ama ezagutuko du, oso ume zelarik aitarekin utzizetxetik alde egin zuena. Amarekin topo egitera joatean iraganeko pasadizoak argitu nahi ditu semeak aitarekin, gaixo jarri zen aitarekin, alegia. Aita marinela izana zen, eta aspaldidanik agindua zion semeari biak itzuliko zirela egunen batean itsasora eta amaierarik gabeko bidaia batean abiatuko zirela.




Euskal Gaiak Euskal Herriko Historiaurrea Xabier Peñalver María José Noain IBAIZABAL

Liburuak honek giza taldeek ohiturak eta garabidean ziren teknologiak finkatzeko aukeratu zituzten guneen azterketa egiten du. Baina, batez ere, gizakiak ehunka mila urtean zehar nolako bilakaera izan duen aztertzen du; tresnak egiteko uharriak lantzen hasi eta antolaketa zorrotzeko herriak erakitzea nola iritsi ziren ikus daiteke.



Egiptoarrak espazioan SAURE

Komiki honek Egiptoko Inperioa gauegun Unibertsoko hamaikalurdetan zehar hedatua irudikatzen du. Damon eta Jeronimo bi lurtar dira, Patruila Imperial ezagunenetako bat osatzen dutenak. Patruila horiek operazio sekretuak burutu behar izaten dituzte, askotan Egiptoko mugetatik kanpo. Damon eta Jeronimok misioa lortzeko metodo bitxiak dituzte: indarra behar erabiltzeko erabiliko dute, trikimailu dibertigarrietara jotz.




Lanbideak karta-jokoa IKASTOLEN ELKARTEA

Karta-joko honetan sei lanbide agertzen dira, eta nork lanbide talde gehien pilatu, horrek irabaziko du ("familiatara" aritzeko mahai jokoa da). Lanbide talde bakoitzaren barruan, bada karta berezi bat: Argitxorena. Karta hori lortzeko, esaera zahar baten hasierari bukaera eman behar zaio. Joko honen bidez, karta eskatzerakoan edota ematerakoan erabil daitezkeen esakera berezi eta errimatuak lantzen dira.



Ibiltzen aldizkaria Udaberriko alea, 38. zenbakia BIGE

"Eskola laikoa: guztion eskola", horixe da Ibiltzen aldizkariaren gai nagusia bere azken alean. PSOEn proposamena 2006/07 ikasturteetik aurrera Geografia eta Historiaren barnean erlijioen historia eta kultura ematea da. Eztabaida piztua da. Euskal Herrian ere, eskola, gizarte eta herri laikoaren aldeko plataforma bat sortu berri da, -eta bertako partaide da BIGE ere.



Garmendia errege Kirmen Uribe Mikel Valverde ELKAR

XIX. mendearen bukaeran Garmendia esaten zioten ondarrutar bat joan zen Ipar Amerikara, artzain lanetara hain zuzen, garai hartan beste euskaldun asko bezalaxe. Pistolari fama hartu zuen Garmendiak, nahiz eta sekula tiro bakar bat bera ere bota ez. Eta abentura asko bizi izan zituen, liburua- ren orriek jaso dituztenak.

Ezagutu ditugu Reggio Emiliako (Italia) 0-6 udal haur eskolak



Ikusmin handia zegoen Reggio Emiliako udal haur eskolen inguruan, eta horren isla da Elkarrekin Hik Hasi jardunaldietan ia 300 lagunek parte hartu izana. EHUko Ibaetako campuseko I. M. Barriolako auditorioa lepo bete zen martxoaren 11 eta 12an.

Lehendabiziko egunean bideo bat ekarri zuten Reggio Emiliakoek eta herria eta haren historia ezagutzera emateko baliatu zuten. Italia iparraldean dagoen hiri horrek 150.000 biztanle ditu. Udal haur eskolen historia orain dela 31 urte abiatu zen, Loris Malaguzzi pedagogoa gidari zela.

Bigarren eguna emankorragoa eta interesgarriagoa izan zen. Sandra Piccinini Reggio Emilia Instituzioko lehen-dakariak antolaketaren inguruko gora beherak izan zituen aipagai bereziki. Udalaren barnean dago aipatutako instituzioa, baina autonomia da, aldi be-



Ezkerretik eskuinera: Maite Saenz Hik Hasiko kidea eta Alfredo Hoyuelos, Sandra Piccinini eta Maddalena Tedeschi hizlariak.

rean. Udal haur eskolen inguruko guztiaren antolaketaz arduratzen da. Sandrak udalaren, eskolan eta hiritarren arteko harreman estua azpimarratu zuen. Hori da, bere ustez, ezaugarri garrantzi-

tsuenetako bat. Hiritarrek eskolak bere egin dituzte, eta halaxe sentitzen dute. Hezkuntza proiektua, herriko proiektua, proiektu politikoa eta proiektu kulturala bat eginda daude.

Maddalena Tedeschi pedagogoa eskola barruko zereginetaz aritu zen. Beraien udal haur eskolak bitan banatuta daude: 0-3koei habiak deitzen diete, eta 3-6koei haur eskolak. Haur talde bakoitzarekin bi hezitzaile egoten dira eta uneoro haurrek egiten dutena behatu eta apuntatzen dute. Garrantzi handia ematen diote dokumentazio lanari, hori baita gero euren prestakun-



2006ko udazkenerako bidaia bat antolatuko du Hik Hasik Reggio Emiliara



tzaren oinarri. Haurrekiko harremanari eta eurekin lantzen duten pedagogia motari dagokionez, laburbilduz, ezagurri hauetan oinarritzen dela esan daiteke: haurra subjektu adimentsu eta gaitutzat hartzen dute, eta hitz eginarazi egiten diote. Izugarritzko garrantzia ematen diote eztabaidari, pertsona bezala aberasteko bide baita. Hezitzaileekin batera parte hartzen dute garbitzaileek eta sukaldariek, eta baita taileristak ere. Pertsona horrek beste ikasketa batzuk ditu eta beste ikuspegi bat emateko dago, hezitzaileenarengandik desberdina den ikuspegia. Irakasleen lana "izorratzeko" dago, harridura sortzeko.

Hirugarren hizlaria Alfredo Hoyuelos izan zen, Iruñeko udal haur eskole-tako adierazpen tailerretako koordina-

tzailea. Iruñean Reggio Emiliako eredu jarraitzen dute, nahiz eta udalaren aldetik italiarrek adinako babesik ez izan azken urteotan, esku pribatuetan uzteko ahaleginak gero eta handiagoak baitira. Iruñeko udal haur eskole-tako esperientzien berri eman zuen irudiz lagundurik. Reggio Emiliako esperientzia beste lekuetan ere praktikan jar litekeela erakutsi zuen, ez dela utopia, alegia.

Reggio Emiliara bidaia

2006ko udazkenean Hik Hasik bidaia bat antolatuko du Reggio Emiliara, udal haur eskolak bertatik bertara eza-gutzeko. Aukera paregabea izango da munduan erreferente den eredu ikusteko.



Ikastaroak



Eskola kirol hezitzailearen inguruko jardunaldiak

Jardunaldi hauetan medikuak, psikologoak, pedagogoak, entrenatzaileak eta, oro har, kirolarekin lotura duten pertsonak bilduko dira. Jardunaldien xedea kirol hezitzaileak hainbat eremutan dituen onurak azpimarratzea da. Eztabaida eta mahai inguruak sortuko dira errendimenduaren aldeko apustua egiten dutenen eta alderdi hezitzaileari garrantzi gehiago ematen diotenen artean. Beraz, ikuspegi askotarikoak izango dira, beti ere euskarri zientifiko eta akademikoan oinarrituz.

Noiz: maiatzaren 26 eta 27an.
Maiatzaren 26an 9:00- 20:30
Maiatzaren 27an 9:00- 18:30

Non: Donostiako Miramar jauregian.

Hizlariak: Euskal Herriko adituak, eskola kirolaren inguruan doktorego tesiak eta ikerketak egindakoak: SHEE-IVEF, EHU-UPV, Ikastolen Elkartea...

Ikastolen Elkartearen jardunaldi pedagogikoak Miarritzen

Aurten Ikastolen Elkartearen jardunaldi pedagogikoak Miarritzen egingo dira apirilaren 14, 15 eta 16an. Seaska ari da antolatzen ISLRF Frantziako Hizkuntzen Goi Mailako Institutuarekin batera. ABCM, Alsazia, Diwan, Britainia, Calandreta, Okzitania, Bressola, Katalunia eta Euskal Herria dira hizkuntzen institutu hori osatzen dutenak eta bi urtetik behin antolatzen dituzte jardunaldiak. Aurten, Seaska arduratu da antolaketaz, eta Ikastolen Elkartearen urteroko jardunaldi pedagogikoekin batu ditu. Biekin bat egin dute.

Murgiltze ereduaren ekarpena europar hiritartasunaren erakuntzan izena dute jardunaldiek.

Apirilaren 14ko, osteguna, hitzaldiak gai honen inguruan zentratuko dira: **Europako hizkuntzen berreskurapena. Zertan da?**

Apirilaren 15ean, ostirala, Nola indartu gure hizkuntzen erabilerak? galderari erantzuten saiatuko dira hizlariak.

Eta **apirilaren 16an, larunbata, Europako hizkuntzen berreskurapena eta hizkuntz eskubideak** gaia landuko da.

Informazio gehiagorako:
Seaska (Irene Sainte Marie)
Tel.: 0033 (5) 59 52 49 24
E-posta: seaska@ikastola.net

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (Olatz Argatxa)
Tel.: 0034 94 630 05 69
E-posta: ehik@ikastola.net

www.ikastola.net

Ipuin kontagintza lan-tzeko ikastaroa Iurretan

Iurretako Herri Bibliotekak ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa antolatu du guraso eta hezitzaileentzat.

Noiz: apirilak 12 eta 26 eta maiatzak 3 eta 10

Ordua: 18:30

Izena-emateko epea: apirilak 15

Informazio gehiagorako:

Iurretako Herri Biblioteka

Tel.: 94 681 27 26

E-posta: biblioteka@iurreta.net

Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen IV. jardunaldiak

Hezkuntza praktikak, esperientzia berritzaileak eta hezkuntza komunitateko eta zientzia komunitateko eragileen ekarpenak emango dira ezagutzera.

Noiz: apirilak 28 eta 29

Lekua: Donostiako Miramar jauregia

Izena-emateko epea: apirilak 21

Informazio gehiagorako:

www.elkarrekin.org

Bizikidetzarako eta Bikerako Hezkuntzari buruzko jardunbide egokiak trukatzeko I. jardunaldiak

Noiz: apirilak 11 eta 12

Lekua: Gasteizko Europa bil-tzar jauregia

Informazio gehiagorako:

Fidelza- Grupo Xabide

Tel.: 945 121 403

E-posta: secretaria@fidelza.info

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Herri txikiarentzat bizitza Lemoizeko eskola

Iaz ireki zituen atea Lemoizeko eskola txikiak 13 haur eta Maite Landa eta Itsasne Atutxa andere oarekin. Aurten ikasle kopuru bikoitza dute (24 haur), eta irakasle taldea ere bitik laura pasa da. Hurrengo urterako, Lehen Hezkuntza ere bertan eskaini ahal izatea da euren erronka. Pauso erraldoiak ematen ari den eskola txikia da Lemoizekoa.

Herriari amas berria eman dio eskolak; auzotarren harremanak sendotu ditu, bizitza propioa hartu du herriak, ez baita axaleko kontua eguneroko bizitza bertan egitea, herri handira begira bizi beharreen. Eta Lemoizentzat muina den eskola komunitate horrek, euskaraz funtzionatzen du.

Maite Landa zuzendariak eta Bego Iturgaitz idazkari eta Ingelesko irakasleak azaldu digute zein gogorra izan zen sorrera, eta zenbat merezi izan duen.

Txiki izateak abantaila handiak ditu. Eskolan dena da oso gertuko, oso familiarra, eta gurasoek hori da estimatzen dutena: haur guztiak ezagutzen dituzte, eta eskolako bizitzan zuzenean hartzen dute parte. Beren eskola da, herrikoa bertakoa. Alde ederra hori edo goizero haurra autobusean utzi beharra, egun osoa kanpoan pasatzeko txiekia denean!

Herriko haurren artean sortzen den harremana ere bestelakoa da. Hasi 2 urtetik eta 5 urtera, denek elkarrekin ikasten dute, memento oso puntaletan soilik banatzen baitira adinaren arabera. Ingelesko saioetan, esaterako, 3 urtekoek ere halabeharrez hasi behar izan dute 4 eta 5 urteko lagunekin batera, gela berdinean zeudelako eta ezin

genituelako kanpoan utzi. Arreta jartzen dute eta gustura aritzen dira, txikiak izanagatik. Adin ezberdinetako haurrak elkartzeak apendizai prozesua aberasten du, gainera; ikasleak bihurtzen dira sarri txikiagoen tutore. Elkarrengandik ikasten dute. "Ikasle nagusiek autoestimua izugarri lantzen dute -gaineratzen du Bego Iturgaitz Ingelesko irakasleak-, ikusten dutelako beren burua txikiei laguntzeko gai. Txikiak espektatibak ere zabaldu egiten dira; nagusiek egiten dutena ikusita, 'handitan nik ere hori egingo dut' diote".

Irakasleen artean, berriz, taldea asko indartzen da; beharko!, denetik egin behar baita, eta denen artean egin beste modurik ez baitago. Lan administrati-





Bego Iturgaitz: “Es-kola txikia sortzea lan gogorra izan daiteke, baina polita; barruan zaudelarik hasieratik nahi duzun eskola diseinatzeko aukera ematen dizulako. Hori profesional batentzat opari bat da, bizitzan behin izaten da halako aukera bat”.

boa, eskola txikian edo handian, berdinegin behar da. Baina eskola handietan pertsona bat izaten da horretara jarria, eskola txikian, aldiz, denen ardura da. Horrek eskolaren ikuspegia zabaldu egiten die irakasleei: “kezkatzen zaituena ez da zure ikasgela eta kito -dio Maite Landa zuzendariak-, eskola osoa baizik. Zer da eskolak behar duena? Haurrek orokorrean zer behar dute?”. Irakasleak talde bateko partaide dira, elkarri laguntzen diote, eta horrek lan pertsonala ere asko aberasten du.

Harremanak estuagoak, pertsonalagoak dira, beraz, bai haurrekiko, bai irakasleekiko bai gurasoekiko, eta baita udalarekiko ere. Udalak sekulako laguntza eman diela azpimarratzen dute, sortzeko ahaleginetan hasi zirenetik bertatik. Herriko haurrak sakabanatuta zeudela ikusten zuen udalak (Gorlizera, Plentziara edo ikastetxe pribatuetera joan behar izaten baitzuten), eta euren artean harremanak sortzea nahi zuen. Ludoteka bat jarri zuten, astean behin herriko haurrak elkartzeko, eta kultur etxean ere hainbat ekintza antolatzen dituzte haurrak batu daitezzen.

Sortzeko urtea: gogorra eta polita

Iaz lortu zuten Lemoizeko eskola irekitzea, 3-4 urte eman ondoren sortzeko borrokan. Herriari bizitza emateko beharrezkoa zitzaien eskola. Hiru auzunek osatzen dute Lemoizko herria: Andraka, Urizar eta Armintza. Baserriak sakabanatuta daude. Baziren 13 urte lehengo eskola zaharra itxita zegoela, eta huraxe da berritu dutena. Iaz 13 haurrekin hasi ziren (2, 3 eta 4 urteko-

ak), eta irakasleak bi ziren. Aurten 11 haur gehiago ditu eskolak (2 urtetik 5 urtera artekoak). Kopurua bikoiztu egin da beraz, eta lau irakasle dira orain. Jantokia ere badu, eta ikasle bat ez beste denek bazkaltzen dute bertan. Irakasleek diotenez, nabari da herriak baduela zerbitzuen beharra.

Sortzeko esperientziaz galdetuta, Maitek garbi dio: “oso-oso gogorra izan zen”. Hasierako bi irakasleak, ordura arte ordezkapenetan aritu izan ziren lanean, eta zuzendaritzako lanik sekula egin gabeak ziren. Eskolan ez zegoen ezer: ez jostailurik, ez libururik... 2 urtekoen gela Hezkuntza Sailak jarri zuen, berri-berria. Baina 3-4 urtekoa euren egin behar goitik behera; dena etxetik ekarri behar, edo beste eskolek utzitakotik. Getxoko Berritzeguneak asko lagundu zien materiala lortzen, zenbait gurasok ere bai (batzuk irakasleak baitira). Hezkuntza Ordezkaritzako biltegietan ere arakatu zuten jostailu zaharrak ekartzeko. Begoren hitzetan, “gogorra baina polita izan da prozesua, barruan zaudelarik hasieratik nahi duzun eskola diseinatzeko aukera ematen dizulako. Gu bezalako profesionalentzat opari bat da hori. Bizitzan behin izaten duzu halako aukera bat”. Maiterentzat ere ez dago konparatzerik ordezeko izatearekin: “eskola batera joan eta zer egin behar nuen zehazten zidaten. Hemen, urte horietan pilatu dudan esperientziatik niri gehien gustatzen zaidana hartzeko aukera dut, eta nik egokien ikusten dudana bezala lantzen dut. Horrek beste balio bat du. Lan gehiago eskatzen du, noski, dena zeuk egin behar duzulako, baina zeure ekarpen hori egiten duzu”.





Beste eskolekiko harremanak

Lemoizko eskolako guraso bat irakasle da inguruko eskola batean. Bestalde, Berritzeguneko hainbat mintegitan parte hartzen dute eta bertan inguruko eskola txikiekin elkartzen dira, euren antzeko egoeran daudenekin. Eskola txikietako zuzendarien arteko mintegi bat egongo da aurtan, eta beraietzat oso aberatsa izatea espero dugu. Batzarrak ere egiten dituzte. Nolega proiektuan sartuta gaude, beste bi eskola txikirekin harremanetan jarrita.

Arazo larriena: irakasleak egonkorak ez izatea

Eskola txikietan irakasle finko gutxi izaten dira, eta ordezkioak asko. Izan ere, ikasle kopuruak asko aldatzen dira urte gutxiren buruan, eta gaur lau irakasle dauden eskolan, bihar agian bi beharko dira. Hori da irakasle finkorik ez izatearen arrazoia. Alabaina, norberaren teilatuari harrika egitea bihurtzen da azkenean, eskolaren kontrako eragina baitu: gurasoak ikusten badu irakasleak etengabe aldatzen ari direla, nahiago izaten du haurra beste eskola batera bidaltzea. Gainera, Lemoizeko kasuan, aurtan Hezkuntza Proiektua diseinatuko dute, zer eskola eredu nahi duten zehaztuz. “Gure kasuan oso garrantzizkotzat jotzen dugu, jarraipena emango baitio orain arte egindako lanari”.

Egun Lemoizko eskolan ez dago irakasle finkorik, bat bera ere ez. Baina, denek nahi dute bertan jarraitu, eta


proiektuan urratsak emateko ez daude kanpora begira, bihar bertan jarraitzerik izango ote duten pentsatzen. “Bestela ez zara sartzen Hezkuntza Proiektu bat egiteko erronkan”, dio Maitek. Lau irakasleetatik bi, zerbitzu eginkizuntan lortutako plazetan daude. “Zerbitzu eginkizuna” plaza berezi bat da, proiektu bereziak dituzten eskoletarako eskaintzen dena, egonkortasuna eman nahian. Bost urterako ematen dute zerbitzu eginkizuna, baina urtero berritu behar da.

Lehen Hezkuntza helburu

Lehen Hezkuntza herrian bertan eskaintzea, hori da datorren urterako eskatzen diotena Hezkuntza Sailari. 5 urteko haurrei segida ematea da euren lehenotasuna, oraindik txikiak direlako kanpora joateko eta sakabanatu egiten

direlako, harremanak etenaz. Gurasoak gustura daude eskolarekin, eta bertan jarraitu nahi dute. Geroari begira ere ikuspegi ona dago: etxe berriak egiten ari dira eta haurrik ez da faltako. Irakasleek 0-3 zikloa integratzea ere proposatu nahi diote herriari, haur eskolarik ez baitago Lemoizen. Baina lehenotasuna Lehen Hezkuntza lortzea da. Bistan denez, urtetik urtera pauso erraldoiak ematen ari den eskola da Lemoizekoa. Oinarriak ondo jarri diren seinale. •

Eskola txikietan irakasle finkoak gutxi dira, eta ordezkioak asko. Hori da eskola horien arazo larriena. Gurasoek, aldiro irakaslez aldatzekotan, nahiago izaten baitute beste eskola batera bidali haurra.



Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegi-tik (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan



4) Atxikimendua
5) Vigotski

14) Jorge Oteiza
13) Jerome Seymour Bruner
12) Heriotza heziketan

6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza
7) Kohlberg



8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorkinak gure eskolan



10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua
11) Howard Gardner

Erakusketa

Ikasle etorkinei
euskara irakasteko
proiektu eta
material didaktikoen

erakus-truke topaketaren
II. SAIOA

Maiatzaren 6an
Bilbon

Maiatzaren 7an
Donostian



**Euskadin, Gironan,
Bartzelonan, Valen-
tzian, Galizian...**

**etorkinei euskara, katalana, gailegoa...irakasteko erabiltzen diren
material nahiz proiektuak erakusgai!**



**Eta... material didaktiko nahiz
proiektu horiek sortzen ari
diren Euskadiko, Gironako,
Bartzelonako...zenbait irakasle
gonbidatuk eskainitako mate-
rialgintza tailerrak!**

Informazio gehiago:
itziaramayo@msn.com
big@ehige.com